



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1994ko martxoa. 0 zenbakia. Doan banatzen da.



Txistokiko
zubia zenb. g.

EROSO, S.L.

Gas eta Berogailu Instalakuntzak Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

GASERAKO ELEKTRAGAILUAK (BITROZERAMIKAK, LABEAK,
LEHORGAILUAK, ETAB.)


 **JUNKERS**

BOSCH taldea
(eta beste marka batzuk)

Galbara Nahasia. Ura Beroa.
Osasunketa eta Berogailu.
• Serbitzu Teknikoa
Gipuzkoa eta Bizkaia-rentzat •



Berogailu ALUMINIO
INIEKTATUA.



PROPANO Ezarketa.
GAS BEREZKOARA aldagarri.

SEI

HILABETEZ

AURRERAKO

FINANTZABIDEA

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:

**DONOSTIAKO
BULEGO NAGUSIA:**


39-11-05

**IRUN-HONDARRIBIAKO
ORDEZKARITZA:**

62-18-64


**ZURE NEURRIKO
AURREKONTUA
EGINGO DIZUGU**

GAS, BEROGAILU ETA GISAKOEN GIPUZKOAKO
ITURGINTZA ENPRESA ELKARGOAREN KIDEA



Aurkibidea

- 2 AGENDA
- 3 MERKATU TXIKIA
- 4 AIURRITARRAK: Jon Unanue López, Manuel Larramendi
Kultur Bazkuneko lehendakaria.
- 6 INKESTA: Eta zuk zer diozu emakume langilearen egunari buruz?
- 8 BERRIAK LABUR
- 10 ZIKULU SALTSA: Arau subsidiario berriak eztabaidagai Asteasun.
Talde politikoen iritzia.
- 13 HERRIZ HERRI
- 18 ERREPORTAIA: Ijito-familia batek zubipea du
bizileku hiru urte geroztik.
- 22 ELKARRIZKETA: Bi asteasuar asto frogetan.
- 24 BASERRIAN: Nekazal turismo ugari Zizurkilen.
- 26 KULTURA: Urriak dira kultur ekintzak Andoainen.
- 28 KIROLA: Billabonan kirola bai, baina non?
- 30 ZAHARRAK BERRI. ERRETRATU ZAHARRA
- 32 MUSIKA: Konpartsa berria Andoainen.
- 34 BEGI ARGIA
- 35 HEMEROTEKA
- 36 HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
- 37 ZURE HIZPIDEA
- 38 ESKOLA ARTEKOA: Zizurkilen Saizarko Elisabeth-ekin solasean.
- 40 PASADIZUAK



1

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal.

Erredakzio Batzordea: Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Jon Unanue.

Erredakzioa: Maider Barandiaran, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian.

Laguntzaileak: Joxe Eizmendi, Xabier Lasa, Eskarne Lopetegi.

Argazkiak: Manu Mujika.

Komikia: Iñaki Gonzalo.

Publizitate arduraduna: Xabier Jauregi.

Banaketa arduraduna: Iñozken Mujika.

Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.

Inprimategia: Izarberri, Usurbil.

Filmaketa: VideoCys, Donostia.

Lege-gordailua: SS-202/94

ISSN: Tramitean.

Aiurri, 0. zenbakia. Beterrri. 1994-3-25.



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Agenda

IKASTAROAK

ANDOAIN:

● ALLURRALDEN:

- * **Hipika ikastaroa** Lasarteko Bugati zaltegian.
Apirilak 5-9, 11.00-12.00.
Apirilak 26-30, 19.00-20.00.
Prezioa: 5.000 pz. abonatuak, 6.000 gainerakoak.

* Igeriketa ikastaroa:

Helduentzat:

- igerian ez dakitenentzat: astelehen, astezken eta ostiraletan goizez 8.30-9.30 eta arratsaldez 19.00-20.00.
Prezioa : 2.800 pz. abonatuak, 5.600 gainerakoak.
- igerian trebatzeko: astearte eta ostegunetan goizez 9.00-1.00, arratsaldez 20.00-22.00.
Prezioa: 2.000 pz. abonatuak, 4.000 gainerakoak.
- estiloak lantzeko: astearte eta ostegunetan goizez 8.00-9.00, arratsaldez 18.00-19.00.
Prezioa: 2.000pz. abonatuak, 4.000 gainerakoak.

Haurrentzat:

- igerian ez dakitenentzat: astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldetan, 17.00-18.00.
Prezioa: 2.800 pz. abonatuak, 5.600 gainerakoak.
arratsaldean 18.00-19.00.
- igerian trebatzeko: astearte eta ostegunetan 17.00-18.00

Beste ikastaro batzuk:

- * Aquajym.
- * Mantenimenduko igeriketa.
- * Mantenimenduko gimnasia.
- * Prestakuntza fisikoa.

BILLABONA:

- * **Bideoaren erabilpena ikastaroa.** Irakaslea: Mila García.
- * **Makrame edo/eta saskigintza ikastaroa.**

MUSIKA

ANDOAIN:

- * **Klabezin kontzertua:**
Apirilak 15, Santa Krutz elizan arratsaldeko zortzietan.
Musikariak: Juncal Guerrero eta Pedro Jose Rodriguez.

HITZALDIAK

ZIZURKIL:

Elkarrik antolatuta:

* Nazioarteko zenbait gatazkei irtenbideak: FMLNko buruzagia den Rebeca Palaciosen bideo-emanaldia.

* Pakearen aldeko mugimendu sozialen mahaingurua.
Apirilaren azkenengo astean.


IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA:

- * "ARTZAINAK Azken nomadak".
 - * "Peru".
- Egilea: Gema Arrugaeta.

BESTEAK:

Bertso afaria apirilak 12an Zizurkilan EGINen alde Urkamendi elkartearen Zeberio eta Mendizabal bertsoariekin.



KALITATEA ETA SEGURTASUNA ZURE ZERBITZURA!!

ANDOAIN
GIPUZKOA

Sorabilla Auzoa, 53. Pol.
☎ (943) 59-38-05
Fax (943) 30-01-06



MAPFRE

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Dr. Huizi kalea, 4-behea
20.140 ANDOAIN
☎ 59-23-07
Fax 30-00-85

Merkatu txikia

Lana

ANDOAIN:

☞ Delineazio-lanak egiten dira. Josu Agirrezabal. ☎ 59 28 40

☞ Kimika ikastaroak. Maila guztiak. Fermin. ☎ 59 22 43

☞ Frantses ikastaroak. Begoña Madinabeitia filologa. ☎ 59 22 06

BILLABONA

☞ Matematika, fisika eta kimika ikastaroak. Arratsaldeko 4etatik 5 etara talde mugatuak.

Maise ☎ 69 12 11

☞ OHO eta BBBko latin klaseak. Maria ☎ 69 96 76

Etxebizitzak

ANDOAIN:

☞ 90m²-ko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. ☎ 43 18 14 Laura.

☞ Nafarroa enparantzan lehenengo zenbakiko laugarren solairuan etxebizitza bat dago sagai. Handia da: egongela, sukaldea eta teilatondoa dauka..

☎ 59 26 24

Ibilgailuak

ANDOAIN:

☞ Woswagen Polo SS-V txuria salgai. ☎ 30 04 14


☞ 20 pulgadatako kolorezko telebista salgai. ☎ 59 25 23

Harremanak

♥ Hementxe duzu zuk behar duzuna. ☎ 30 07 32/ 30 07 33

Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaiguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinarenean gainean izango da.

Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.



AGUSTIN LEITZA 3 eta 5

Aiurritarrak



Jon Unanue López
Manuel Larramendi
Kultur Bazkuneko
lehendakaria

Kosta ahala kosta iritsi da Aiurri aldizkariaren lehenengo zenbakia argitan ikusteko eguna. Baina ibilitako bidea ez da batere erraza izan. Nahi eta uste baino maizago iragarri dugu prentsako notizi eta albistez aldizkariaren jaiotza, eta orain da unea lehen urrats horiek zuritzeko. Aldizkaria gauzatzeko aukeratu dugun garaiaren egokitasuna alde batera utzirik -ez baitirudi egoera sozial eta ekonomikorik loratuena aukeratu dugunik-, inoiz baino garbiago ikusten dugu orain, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko kideok gure asmoen berri eman eta elkartearen ezagutarazteko iharduera edo ekintzaren bat aukeratzera, eskualde osorako aldizkariarena datorrela -orain hilabetekari ala noizpait, agian, astekari izan- gure neurria garbi azaltzera.

Gure neurria garbi azaltzen du, pentsakera, jatorri, izaera, ogibide eta zaletasun askotariko lagunek bat egin dugulako, batetik, bere baitan lotura handirik ez duen eskualde batean martxan jartzearen herritarren gogoan asetzeko bitarteko informatibo, sozial eta kultural berri bat, eta, oso bereziki bestetik, Kultur Bazkunaren helburuei jarraiki erronka itzela hartu dugulako guregain eskualde aldizkari hau euskara hutsez egiten. Zergatik? Euskararen erabileraren benetako normalkuntza eta euskal kulturaren aberaskuntza direlako gure xedeak.

4

Baina beste konpromezu batek azaltzen du ere gure mamia: ezinbesteko deritzogu herritarrok gure helburuen inguruan elkar hartzearekin batera, udalek, instituzioek oro har, beregain hartzeari dagozkien neurrian gure proiektuak, bere helburuek eta gureek bat etorri behar baitute, ezinbestez, horien bila eraginkorki abiatuko bagara. Udalei guri bezainbeste egotzi behar zaie gure hizkuntza eta ondare kulturala sustatu eta aberasteko obligazioa. Hori, behinik behin, begibistakoa da.

Arazoak ez dira faltako aldizkariak zenbakiz zenbaki aurrera egin ahala. Baina hasieran ere izan dugu nahiko: susmokeriaz hitzegin digute eta muzinkeriez begiratu -eta begiratzen- gaituzte alde ugartik. Hankatraba eta azpikeriarik ez da falta izan. Ohizko kritikez aparte udalen finantzabide oparoa leporatu digute. Gogoz gainezka gaude aldizkariaren finantzabidea beste edozein proiektu publiko ala pribaturenari alderatu eta xaxatzaileei uztarria jartzeko behingoagatik.

Baina ez! Ez gara abiatuko ohizko bidetik. Lanera goazen!, eta gure gizarteak hain beharrezko duen baretasunez eguneroko ihardunean azalduko dugu gure neurriaren eragina.

Beraz, harik eta atzekoz beste egitea erabaki bitartean egon zaitezte gurekin. Ongietorriak Aiurrira!



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



ALOTZ
IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

Publizitatea

EUSKARAZKO IKASTAROAK EGIN NAHI BADITUZU...
ZURE BURUA ALFABETATU NAHI BADUZU...

EUSKARAZ IRAKURRI ETA IDAZTEKO GAUZA IZAN
NAHI BADUZU...

AURRERA!

UDALAK IKASTAROAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA
EMANGO DIZU.

*Andoaindarra izanik eta eskuratzeko baldintzak bete ezker, aukera aparta duzu orain.

* Jo ezazu informazio bila Udaletxeko Euskara Zerbitzura.



ANDOAINGO UDALA
EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO
BATZORDEA

5

⇒ ERNE HONI!

⇒ ZER ESAN HAUNDIA DAUKAZU KONTU HONETAN!!

⇒ GURE HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATU, SENDOTU ETA ABERASTEA
GOGOKO BADITUZU...

✌ EZ BESTE INOREN ZAI EGON:

**«MANUEL LARRAMENDI» BAZKUNEAN
ZURE BEHARREAN GAUDE!**

* HARTZAZU PARTE LARRAMENDI ELKARTEA OSATU ETA ZABALTZEKO
AHALEGINEAN,

* EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

2. Artikulua: «Manuel Larramendi» inongo eta inolako interes politiko, gabeko Bazkuna da, eta, beraz, zabaldu akoa, bere burua adierazitako dezakeelarik Bazkunean. 3. Artikulua: xede nagusi eta naharo dituztatek, euskara erabileraren erabateko normalkuntzara



Kultur Bazkuna sortzez dituen etik kanpo merkatal, erlijioso edo pribatari makurtu pent samolde, ideologia, eritzi eta joera orori egin beharrei lotu nahi dien edororkeskuhar «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunak bi hizkuntza susperitu, osatu eta hedatzea, bere helduas moz. Bestea, euskal kultura indartu

Eta zuk zer diozu

1908ko martxoaren 8an ehundik gora emakume hil ziren Chicagoko Cotton lantegian greban zeudela bertan itxi eta ugazabak su emanda. Hori dela eta, martxoaren 8a harrez gero Emakumearen Nazioarteko Eguna da. "Emakumeak lan eta lan, eta lanik ez" eta "Gure aurkako biolentziari kaña" izan ziren egun horretan zenbait giza mugimendu eta talde fiministek erabilitako leloak.



Martin Laskurain, jubilatua. Billabona.

Emakumeek guk adina eskubide daukate bizitzeko, guk bezalakoxe eskubideak dauzkate, berdin berdin. Emakumeak, adibidez, sagardotegi-
ra joan beharko lirateke, tuntunak direlako ez dira joaten, senarra bakarrik joan eta berandu samar etortzen denean muturra jartzen dio, biak elkarrekin joanez gero, bakea. Nik uste dut horrelako egun bat emakumeen artean elkartasuna bilatzeko balioko duela.

6



Lidia Urdinlaiz, irakaslea. Zizurkil.

Urtean egun bat izan beharrean, egunero minutu batzuk behintzat eskatuko nuke nik. Guk kanpoan egiten dugu lan, gero etxera joaten gara eta lan piloa daukagu oraindik. Ez dago eskubiderik. Aipatzen den berdintasuna gaur egun oraindik ez da existitzen. Egund sinbolikoa da gaurkoa, zerbait gehiago egin beharko litzateke: eguna jarri baino, laguntza gehiago eman.



Martina Lizarribar, etxeoandrea. Andoain.

Guk ez dugu sekula jai egiten. Egund honetan gizonaek ez digute jai egiten uzten, oraindik ez dute konprenitzen eta beste edozein egund bezala pasatzen dugu, lanean. Horrelako egund batek emakumeak elkartu, hitz egin eta ondo pasatzeko balio du. Emakumezkoak gizonaek baino zigortuagoak gaude, lanean, etxean... gizonaek zortzi ordu egiten dute lan eta kitto. Horregatik merezi dugu horrelako egund bat.

ARTZA
KROASANDEGIA
Ondarreta kalea, z/g
☎ 59 36 73
ANDOAIN

OCTAVIO CANORA
Dr. Ituzi, 8-behea
ANDOAIN

PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK

ARANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI


Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

emakumearen egunari buruz?


Nekane Txapartegi, irakaslea. Aduna.

Ez zait egun hau ospatzea beharrezkoa iruditzen eta nik ez dut horrelako asmorik. Eguneroko bizitzan erakutsi beharko genuke gizonezkoak bezain beste balio dugula lan egiteko. Gainerakoa feminismoa da, matxismoaren aurkakoa justu justu. Pentsatzen dut horrelako egun baten bidez emakumeok ere lanerako balio dugula adierazteko izango dela baina ez dut uste ezer asko lortuko dutenik.




David Hernandez, langilea. Asteasu.

Horrelako egunik ez litzateke existitu beharko. Emakumeek eskubide berberak nahi baldin badituzte ez lukete egun berezirik izan beharko, guk ez daukagu horrelako egunik. Guztiok langileak bagara hortxe dago maiatzaren lehena, langilearen eguna. San Jose eguna ere badago baina hori ez da gauza bera.



Maria Iriarte, baserritarra. Larraul.

Emakumeak askotan gizonak bezala lan egin nahi dugu, baina batzuetan ez gara gauza, gehiago kostatzen zaigu, baserriko lanetan adibidez. Horrelako egun batek atsedeen hartzeko balio du batez ere, nik bastante atsedeen hartu dut gaur, bihar lan gehiago egin beharko dut. Egun bateko atsedena eta bakea, nik hori besterik ez dut eskatzen.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA
Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99
20140 ANDOAIN



Txuri Beltz
Taberna
KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELE. 59 35 49


ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA
KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67
20140 ANDOAIN

JANTZIK
BOUTIQUE
Udaberri eta udako moda zeure
esku preziorik onenean.
Kale Nagusia, 45 - ☎ 59 28 28 - ANDOAIN

ANDOAIN

● **Bost kilometroko kotxe iladak** ikusi ziren hilaren 10ean goiz aldean Andoainean, N-lean bezperan gertatutako lur-jausien ondorioz Donostia aldera zihoazen kotxeak Sorobilla auzotik desbideratu behar izateagatik, alegia. Gazteiz aldera jotzeko asmoa zuten kotxe-gidariei A-8 autopistatik abiatzeko aholkatu zitzairen. Bi arrazoi eman dira lur-jausien zergatia aipatzean: Diputazioak dioenez, Oria ibaia ubideratzeko lanek eragin zuten lur-jausia, izan ere, errepidetik oso gertu ari dira lanean eta ezpona bat pitzatzean gertatu omen zen ezustea. Beste zenbait iturrien arabera Gipuzkoa-Nafarroa autobidea lotzeko lanek eragin zuten jausia.



ZIZURKIL

● **Illarratxuetako terrenoetan** egin nahi den **parke naturalaren proiektua** burutzeko Udalak antolatu zuen lehiaketan KAREHARRI deiturikoa izan da irabazlea beste sei lehiakideen artean. Udalak erositako 200.000m²-ko lur sailaren paisaiaren balioa handia da. Inguruneak ezagutzeko ibilbideak antolatu nahi dira besteak beste, guneak duen aberastasun ekologikoa aprobetxatuz. Proiektua esku artean izanda, Diputazioa, Mendi Nekazaritza Elkartea eta bestelako erakundeengana jotzeko asmoa dauka Udalak proiektua aurrera atera ahal izateko.

8



● **Mikel Arrastoa alkatea eta Juanjo Aranburu zinegotzia** martxoaren 12tik 27ra El Salvadorreko **Comunidad Segundo Montes-en** egongo dira hilaren 20ean bertan izan ziren hauteskundeetako begirale ofizial gisa, ASPAD delako erakunde daniarrak gonbidatuak eta Euskal Fondok bidaliak. Honez gain joan den irailean Zizurkilen izan ziren salvadortarren gonbidapenari jarraituz herri harekin anaitzea du helburutzat bidaiak.

Beste anaikidetzak harremanik burutzeko asmoa ere badaukate, itzulitakoan Zizurkil inguruko beste herri txikiren batekin, edota ahal balitz, eskualde osoarekin kidezko.

STOP

LIBURUDENDA
PAPERDENDA

Agustin Leitza kalea, 27
☎ 59-16-03
ANDOAIN

**Aukerarik
zabalena!!**

Liracuna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

BILLABONA



Hamazazpi mutilek osatu dute momentuz **Billabonako talde antimilitarista**. Asmo beretsuak eraginda biltzea lortu dituen lehen taldea da honako hau. Aurrerantzeko lana izango dute beraien izaera definitzea, intsumisioa edo objezioren aldekoa. 16-25 urte bitarteko gazte hauen lehen eginkizuna herrian dagoen intsumiso eta objetore kopuru zehatza ezagutzea da, uste baino gehiago direlakoan baitaude. Taldean objetoreak, intsumisoak eta baita epaiketa bidean daudenak bildu dira.

Udalaren ekimenez eta APURKA taldearen baitan bildutako taldeen adostasunez AGIDAP erakundeak herrian **kirol, kultur zein beste edozein alorretan dauden hutsuneak** ezagutu asmoz datu-bilketa egiten ari da Billabonako talde ezberdinen artean.

ASTEASU

TVEko bigarren kateko kamarak Asteasu inguruak miatzen ibili ziren Bernardo Atxaga idazle asteasuarrari egin zioten elkarrizketa aitzakitzat hartuz. Larunbatero antenaratzen den "Cerca de ti" saiorako burutu zuten grabaketa..

TODO TODO



FABRIKAKO PREZIOAK

GONG

ZURE EROSKETEK ABANTAILARIK HANDIENA IZAN DEZATEN

Irun-Madrid errepidea,
Adunako zubia pasa eta
eskubitara.
Andoain-Zizurkil ibilbidea.

ADUNA

Elbarrena pol., z/g.

-ASTEASU-

Arau Subsidiario berriak

Udaleko bi alderdiak ez dira bat etorri onespena emateko garaian



Elizmendi

Urriaren 18an eman zitzaion Arau Subsidiario berriei hasierako onespena, Eusko Alkartasunako lau zinegotzien aurkako botuekin. Abenduaren 18an aldeko eta aurkako botu berberekin onartu ziren behin betirako Arauak eta Diputaziorako bidean jarri. Une honetan Udala eta herritarrak azken honen erantzunaren zain daude. Prozesu luze honetan zehar herritar batzuek ere euren ezadostasuna agertu dute zenbait alegazio aurkeztuz. Otsailaren 4ean burutu ezin izan zen bilera informatiboa antolatu zen Udaletxean, bertan nabarmen agertu zen gai honek piztu dituen haserre eta liskarrak.

Ugariak dira Arauen aplikapenaren ondorioz Asteasun gerta daitezkeen aldaketak ordenantza berriek esparru ezberdinak hartu baitituzte kontuan. Hona hemen, laburbilduz nagusienak: gaurdaino 8.000-10.000m²-ko lur-saila izanez gero, bazegoen nekazal lur arruntetan etxebizitzak eraikitzerik, aurrerantzean ordea, galerazi egingo da, baldin eta etxebizitza nekazal iharduerari lotua ez badago; Ibarrazpiko lur sailetan babes ofizialeko etxebizitza bifamiliarak eraikitzekeko poligonoaren

sorrera eragin nahi da, Udalak 7.000 m²-ko atala erosi du dagoeneko eta bertan hogecita hamar etxebizitza eraikiko dira epe motzcan, beste bi lurjabeen eskuetan dago orain Udalaren asmoa osorik burutzea ala ez, izan ere, ehun etxebizitza eraikitzea dago aurrikusia.

Kabela eta Lamitegiko lurak, kirol instalakuntzetarako aurrikusitako lekua, frontoi berriaren eta balioasokotako pistaren kokagune izango dira. Asteasuk zaharren etxe eta egoitza berria ere izango du hiltegi zaharrean.

Gainera Agroaldea izeneko beste gune berezi bat aurrikusi da nekazal iharduera bertan bildu eta ekoizpena espezializatu asmoz.

Atzerreka estalita edota agerian utzi behar ote den ere Arau berriek eztabaidagai jarri duten beste puntuetako bat da; herriguneko eraikuntzak zenbateraino bota edota berregokitu daitezkeen ere auzitan jarri da,

Auzi honetan ordea zenbait herritarrek ere aurkeztu zuten bere garaian alegazioak, hamabost hain zuzen ere, bata 200 firmez lagundua,

Zikulu saltsa

batzuk osorik onartu ziren, neurri batean beste batzuk eta onartu ez zirenak ere izan ziren. Onartu ez diren alegazio gehienek puntu baten inguruan agertu duten euren desakordioa, nekazal lurretan etxebizitzak eraikitzea galerazten duen puntuaren inguruan hain zuzen ere. «Aurreko Arauekin alderatuz nekazal lurretan eraikitzeo aukera dexente murriztu da» diote alegazioek, «eta erabaki hau irizpide subjektiboetan baino ez dago oinarritua, honek gizakien jabetza pribaturako, berdintasunerako eta etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea galerazten du». Udalaren argudioei erantzunez, zenbait arrazoi eman dituzte euren defentsan: batetik, ingurunea eraldatu eta ekosistema babesteko neurriak hartu omen daitezke eta bestetik, nekazal iharduera eta era honetako etxebizitzak bateratzea posible omen da.

POLIGONO BERRIA

Arau berrien arrazoiak bi dira batez ere Herri Batasuneko zinegotzien esanetan: batetik, herrian etxebizitzak behar ziren, «horrela adierazten dute behintzat 1991an eginiko inkestaren emaitzak». Inkestaren arabera gehientsuenek familia bakoitzeko edo bikoitzeko etxebizitzak eskatzen zituzten. Bestetik, azkenengo urtetan etxebizitzak egitea galerazi duen arazo gaingintza egin nahi izan da, «hau da babes babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lur eremua sailkatu da, era honetan eta, lur jabeekin koponduz gero, eskariari ongi erantzun ahal izango diogu, momentuz bi edo hiru urteko etxe eskariari erantzun ahal izango diogula pentsatzen dugu erositako lur sailarekin». «Aurreko Arauekin alderatuz ezberdintasun nabariena honako hau da: lehen burutu nahi zen plan partziala aurrera eramateko lurjabe guztiek ados jarri beharra zeukaten, orain berriz bakoitzak bere erabakia har dezake eta akordioak lortzea errezagoa izango da» diote.

Eusko Alkartasuneko zinegotziek, berriz, aurrerantzean ere lurjabeekin akordioetara iristea ez dela



Arau Subsidiarioen berrikuspen eta moldaketan zergatia azaldu aurretik eta sarrera gisa Arauak zer diren esatea komeniko litzateke. Azaltzeko


adibide bat jarriko dugu: eman dezagun gure etxeetako antolaketa egin behar dugula. Bakoitzak bere etxea irizpide logiko batzuen arabera antolatzen du, kokapena, ohiturak, erosotasuna, geroa eta beste baldintza batzuk kontuan hartuz.

Etxean ezinbestekoak diren lekuak toki aproposetan eta zentzuzkoenetan kokatzen dira eta ez ganbaran, ikuiluan edo sukalde txokoan. Gure etxea eta lurra antolatzea beharrezkoa den bezala, beste maila batean gure herria eta lurraldea ere antolatu beharra dago, herritarren eta gainontzekoen mesede eta funtzionamendurako. Ezinbesteko antolaketa hau Norma edo Arauen bidez gordetzen da.

Antolaketa hau denbora pasa eta gero berrikusi eta aztertu egin behar izango da. Batzuetan antolatutakoa ezin izaten da bere osotasunean aurrera eraman, besteetan, gizarteak eraginda, etengabeko aldaketak eskatzen ditu eta azkenik, etorkizunari aurre hartu behar zaio, gaur antolatzen denak bihar balio izateko.


Hau dela eta, Asteasuko Udalak bost urtez eduki diru Hirigintza Arauak indarrean. Arau hauek bederatzi urte hauetan ezin izan dira bere osotasunean gauzatu. Industrialdeak eta nekazal lurretako bizitza bakarrek etxeak goratu diren bezala beste gainontzeko proiektuek porrot egin dutela esan dezakegu, lurjabeen arteko konponezinak eta etxe berriak egiteko interes falta direla medio.

Panorama honen aurrean Herri Bataunak neurriak hartzea erabaki zuen Arau berriak eginaraziz, egoera eta hirigintza irizpide berrietara egokituz, orain artean aurrera ateratzea ezinezkoa izan dena aurrerantzean gauzatuko delako ahaleginean.




Hemen eraikiko da poligono berria.

Zikulu saltsa



Alde Zaharra



Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen eta moldaketa:

Etxebizitzetarako lurretan bi gune nabari ikusten dira: bata, kalekoa bere Alde Zaharra eta hirigunearekin. Bestea, Elizmendiko auzoa. Plangintza on batean oreka bilatu behar da, orain gaizki dauden guneak ez baztertzeko.

Elizmendingin, batetik, lehen kalifikatuak zeuden lur batzuk deskalifikatu egin dira eta, bestetik, Udaletxe atzeko lurretan gune handi bat planteatzen da etxebizitza pilo bat egiteko. Plangintza orokorki ikusten badugu konturatuko gara hirigunea bera baino handiagoa dela hazkunde hori. Hazkundera gehigikeria izan daiteke eta desoreka nabaria izan, batez ere kontuan hartzen badugu Elizmendiko gunea nahikoa hutsik geratzen dela.

Bestalde, Alde Zaharraren birmoldaketa nahi badugu bere bizitza bultzatu behar dugu, ez alderantziz. Udaletxe atzeko lurretan horrelako garapena egiten badugu herriaren hirigunea Billabona aldera aldentuko dugu eta Alde Zaharra oraindik gehiago baztertu.

Honez gain, Elizmendiko guneak beste tratamendu bat behar duelakoan gaude, alde batetik, bizitza gehiago emanez eta bestetik, oraingo auzo-gunea indartuz, hau da, eraikuntzak bertara hurbilduz eta hirigunea sendotuz.

Ekintza industrialak Alde Zahar eta kaletik aldentu behar dira azken hauek erosoagoak izan daitezzen eta bizi kalitatea hobea.

erraza izango pentsatzen dute, «Udalak erositako atalean egingo dira, baina ez dira gehiago egingo». Honez gain Elizmendin dagozkionez, «oraingo gune eraikigarria lehengoa baino askoz ere txikiagoa da, nekazal lurra bihurtu da gehiena, eta auzoa hipotekatuta gelditzen da orain, hazteko aukerarik gabe»

TXALETIK EZ

Herri Batasuneko zinegotziei Arau hauen zergatiaz galdetu diegunean arrazoi nagusi bat aipatu digute: «Nahi duenak edozein tokitan etxea egitca galerazi nahi izan dugu, ingurunearen izaera mantendu nabiean. Bestalde, «Lurralde Antolaketarako Jarraipide berriak» delakoetan (Nuevas Directrices de Ordenación territorial) delakoetan oinarritu dira. Lege honen arabera ez Bizkaian ezta Araban ere ezin da nekazal lurretan txaletik egin. Gipuzkoan berriz beste

zenbait herritan arau hau dagoeneko indarrean jarri da, beste herri batzuetan berriz, Diputazioak ezezkoa eman die zenbait proposamenei, alegazioak ikusita.

Eusko Alkartasunaren iritziz azkenengo urtetan ez dira hainbeste izan Asteasuko lurretan txaletak egin dituztenak, "gainera lurren salmenta baserriarrentzat konponbide ekonomiko garrantzitsua izan daitekeela hartu behar dugu kontuan".

Eusko Alkartasunak bere eza-dostasuna adierazteko beste hainbat arrazoi ere aipatu ditu: ez dago Atzerreka herrian zehar agerian uztearen alde; eta herriguneko etxeak ez botatzeko hartu den erabakia ez zaio egokia iruditzen, etxe gehienak oso hondatuta daudela eta. Bukatzeko Arauetan aurrikusi den guztia aurrera ateratzeko nahikoa diru ez dela izango iruditzen zaio eta «ziurra da, hainbeste alegazio ikusita, Diputazioak berak ez dituela

Arauk onartuko". Herri Batasunak dio jendearen eskariak eta legeak agindutakoa bete nahian onartu dituela Arau Subsidiario berriak.

Diputazioak emango du aldeko edo kontrako iritzia, baina garbi dago gaia ez dela puntu horretan amaituko, errekurtsio bidez gaia auzitara iritsi baitaiteke. Orduan, interpretazio juridikoak eztabaidatuko dira eta legegizonen aldeko eta aurka argudiatu ahal izango dituzte. Bienbitartean Udalak gehiengoz Arau berriak onartu ditu, zenbait lurjabeen jarrera ere funtsezkoa izango da zenbait proiektu aurrera atera ahal izateko, Diputazioa eta Eusko Jaurlaritzak baieztatu behar duen hainbat aurrekonturi agroaldea edota kirol gunea bezalako asmoak garatzeko eta Diputazioak eta Auzitegiek kontrakoa esan bitartean ezingo da nekazal iharduerara zuzendua ez dauden etxebizitzak nekazal lurretan eraiki.

Herriz herri



Babes ofizialeko etxebizitza berriak

Lau bloketan banatutako hamasei etxebizitza eta hogeita bat garaje eraikiko dituzte aurki Herriko Plazan dagoen Arizti etxearen atzean. Lanak hilabete honetan adjudikatu eta berehala hasiko dituzte, hurrengo urteko udan amaitu asmoz. Azkenengo urteetako jende-galtzeari aurrea hartuz, bertakoei herrian bizi izaten jarraitzeko bidea eskaini nahi zaie babes ofizialeko etxebizitza hauen bidez.

ADUNA

Blokeek bi solairu eta lau-na etxebizitza izango dituzte, trasteleku eta guzti. 80-85m²-ko etxebizitzen prezioa bederatzita eta hamar milioi bitartekoa izango da, txikiagoak ere izango dira, 55-60m²-koak, hauek zazpi milioitan salduko dira. Lur azpiko 18m²-ko garajeen prezioa 1.600.000 pezetakoa izango da. Garaje guztiak, hala ere, ez dira babes ofizialekoak izango, hamar baino ez dira etxebizitzen baldintza berberetan salduko. Lokal komertzialeko ere aurrikusi da tokia.

Alkatea den Jabier Zaballak dionez etxebizitza hauen bidez bertan bizi izaten geratu nahi duten gazteei erraztasunak eman nahi zaizkie, etxebizitzak prezio onean eskainiz. Ahal izanez gero, kanpoko jendea ere bereganatu nahi dute. Eta beteko dute euren nahia, izan ere, hamar adunatarrez gain sei kanpotarrek erosi dituzte etxeak, hain zuzen ere Adunako parajeak eta etxebizitzen prezioak erakarriak, babes ofizialeko etxebizitzak erosiz, besteak beste, kreditu merkeagoak eskuratu ahal izango baituzte.



Etxebizitzak eraikiko dituzteneko lur-saila.

BIZTANLEGOA

1990.....	379
1950.....	482
1975.....	353
1991.....	296
1993.....	305


BELKOAIN kooperatiba, erosleak beraiek osatua, da lan hauen bultzatzaile nagusia. Abantaila ekonomikoak eta lanean arintasuna lortuko dutelakoan osatu zuten irailean Udalak proiektua onartu ondoren. Etxe hauek ez dira, hala ere, Adunan eraikiko diren

bakarrak, familia bakoitzeko eta bikoitzeko zenbait etxe ere aurki egingo dituzte etxe-blokeen inguruan.

Ahalegin guzti honek helburu garbia dauka Jabierren esanetan: orain arteko migrazioa galerazi eta biztanlegoa mantendu, "honek emango dio herriari hazteko eta beste zerbitzu batzuetaz hornitzeko aukera", dio Jabierrek, "era beran herria bera, hirigunea batez ere, Herriko Plazatik aurrera zabalduko da".

13

Ormendi Kirolak
 AUKERA ZABALA
 KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

Joxe Mari Iturralde
 ZURGINDEGLA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



Herriz herri

Zaborrak jango gaitu



Pagamendiko zabortegia.

Larramendi eta Upategikoek ondo gogoan dute oraindik Saletxeberri ondoko zabortegiko arratoiak baserri atarietaraino igotzen zitzaizkien garai hura. Ez denbora asko trenbide gaineko zabortegira zakarrak botatzeari utzi zitzaiola. Hala ere, herrian handitzen ari da etengabe zabortegi inkontrolatuen kopurua.

Andoaingo Ekologistak taldeak arazoaren larritasuna ikusi eta arazoa publikoki salatu zuen orain gutxi. Guztietan larriena, hilerrira bidean Pagamendi inguruan da goen zabortegia da.

Baina Pagamendikoa ageriena izan arren, ez da herrian da goen zabortegi inkontrolatu bakarra. Badira beste hainbat: Otitatik

Goiburu bidean goazela ere bada bat, bestea Etxarririk Otita gainerrako bidean, Goiburun Txertueta baserria pasata ere aurki liteke zabortegia, baita Plazaolako lehen tunelaren ondoan, eta Bertxingo Zentralaren parean ere.

Andoaingo Ekologistak taldea eta Ramon Barela Udaletzeko Ingurugiro teknikaria bat etorri dira puntu beltz hauen zerrenda egitean. Barelaren arabera, zabortegi hauek duten ondorio begibistakoen paisaiaren aurkako eragina da.

Zabortegien arazo hau konpontzeko Udalak isunak jarri izan ditu orain artean. Modu hone-

tan geldiarazi zituzten Saletxeberri ondoko zabortegia eta Tolosatik Andoaingerako sarreran Ubillos izeneko inguruan zegoena. Dena den, irtenbide hau motz gertatzen da, inguru horiek eraberritu egin behar baitira, eta gainera gehiago ez sortzeko prebentzio plangintzak bultzatu beharko lirateke". Baina horretan hankamotz daude instituzioak. Kontzientziazio kanpainak urriak dira oso oraindik, eta zabortegi izandako inguruak eraberritzeko plangintzek azkenaldi honetan arazo guztiek duten mugarekin egiten dute topo: "ez dago dirurik".



ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN



TXERRIKIEN
BANATZAILE ETA
EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

ANDOAIN

OLASAGASTI

LORADENDA

KALITATEA ZURE AUKERAN

Kale Nagusia, 11 ☎ 30.06.20

TRUCHUELO


Argazkilaria

ARGAZKIGINTZARAKO
OSAGARRI GUZTIAK

Kale Nagusia, 34 ☎ 59.12.56

Herriz herri

Bostgarren Aste Kulturala



Hogeita hamar lagunez osatutako batzordeak ekin dio dagoeneko Aste Kulturala antolatzeari. Maiatzaren 13tik 22ra luzatuko den aste honetarako Pello Errotaren omenez egingo diren bertso jaialdia, afaria eta mahaingurua, rock kontzertua, herri-kirolak eta hitzaldiak dira behin behingoz aurrikusi

Pello Errota hil zeneko 75. urtemuga dela eta, antolatuko diren bertso jaialdiari esker Aste Kulturalak Asteasutik kanpo ere oihartzunik izango duela pentsatzen da. Momentuz Joxerra Gartzia- ren laguntza eskatu dute eta zenbait bertsolariarekin ari dira harremanetan jartzen. Bertso afaria izango da lehen eguneko ekitaldi nagusienetakoa.

Rock kontzertua izan zen, iazko harrera ona ikusita, ezinbestekotzat jo den beste ekitaldietako bat. Besteak beste, Lin Ton Taun eta Exkixu taldeak proposatu zituzten gazteek. Segurua da aurten ere taberna bat jarriko dela, gazteek antolatze-ko interesa agertu baitzuten. Bertako diru-sarrera Aste Kulturalaren gastuei aurre egiteko erabiliko da.

Pello
Errota



diren ekitaldiak. Azkenengo urteetako joerari jarraituz aurten ere batzordea gaztez dago gehienbat osatua, honez gain Udal-ordezkaririk ere izan zen aurreko batzarrean, Martin Otegi zinegotzia, alegia.

Ohizkoak diren herri-kirolak eta Gipuzkoako harrijasotzaileen txapelketa aur-

ten ere izango dira, baita hitzaldi batzuk ere astean zehar, orain artekoetan oso jende gutxi-
parte hartu izan badu ere. Bertako eta kanpoko mendiei eta Asteasuko baserriei buruzko Arantzadi Elkartearen diaposi-
tiba batzuen emanaldia ere aipatu ziren.

Aurten ere omenaldiren bat antolatu behar zela eta, erremantista asteasuar baten izenik ere bota zen. Bostgarren aste honetarako aldaketarik izatekotan aste beraren iraupena izango da, izan ere, orain arte asteburu ezberdinetan burutzen baziren ekitaldiak, oraingo honetan astebetean egingo dira, 13an hasi eta 22an bukatuz.

ASTEASU

15

LAGUNAK

KARROZERIA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMICOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA

**PATXINE
JATETKEA**

GURE BEREZITASUNA:

EUSKAL

SUKALDARITZA ETA
ETXEKO POSTREAK



Erreroak, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

Herriz herri

Larunbatero mozketak zubian



Billabona eta Zizurkilgo Udalen deiarri jarraituz ehundaka bizilagunek hartu zuten parte otsailaren 26ean zubian eginiko prentsaurrean. Modu honetan lanak berriro hasia ahalbidetuko duen Eusko Jaurlaritza eta Diputazioaren arteko akordioa eskatu zuten.

"Zatozte, hurbildu zubira, ez da eroriko eta...". Pertsona askoren nahia adierazten duten hitz hauekin eman zitzaion hasiera prentsaurreari zubi gainean. Bertaratutakoek



Zubi berriaren alde bi Udalak bat eginda

Diputazio eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioa eskatu zuten aho batez, iadanik aurrefasean zeuden zubi berriaren lanak geldiarazi baititu bien arteko ezadostasunak.

Prentsaurrean adierazi bezala, zubi berriaren eraikuntzarekin zaharrak sortarazten dituen arazoei aurre egin nahi zaie: igarotzeko seguruagoa izango den zubia lortu nahi da batetik, eta bestetik, Oria ibaiaren ubidea oztopatzen duten zubiko piloiak aldatu nahi dira, orain daudenek sortarazten duten urtegi efektua ekidin asmoz.

Bi Udalek zubi berriaren eraikuntza lortzearen emandako azken urratsa izan zen prentsaurrea. 1948an ia Udalek "Comisaria de Aguas" delakoari zubia zabaltzeari buruzko txosten bat eskatu zioten. 1992ko azaroan zubi berriaren proiektua onartu zen, hilabete geroago lana Altu-

na y Uria enpresari adjudikatu zitzaion. Epe honetan alegazioak aurkezteko aukerarik egon arren, inork ez zuen inongo alegaziorik aurkeztu.

1993ko udan Eusko Jaurlaritzak zubi zaharra Santos Bideak eragindako elementutzat hartu zuen. Hilabete batzuk geroago Pablo Go-

rosabel Kultur Elkarteak zubiaren ikerketa osoa eta zehatza egin zezan eskatu zion Ondare Zuzendaritzari. Azken honek urtarrean zubia botatzeko baimena eman zuen, nahiz eta baldintza modura eraikuntza zaharraren zenbait ezauzgarri mantentzea beharrezkotzat jo. Otsailaren 8an Diputazioak Eusko Jaurlaritzari zubia botatzeko baldintzak bideraezinak zirela eta, ondorioz, zubia botatzera eta Altuna y Uriarekin zegoen kontratua bertan behera uztera derrigortua zegoela jakinarazi zion.

Gauzak honela, eta ibaiaren funtzionamendu hidraulikoa eta trafikoa arazoak luzaroan konponbiderik gabe geratuko diren beldur, zubian larunbatero errepedea mozteko erabaki hartu dute Udalek. Diputazio eta Eusko Jaurlaritza ados jarriaraztea du helburutzat ekintza honek "behin-agoz, iadanik hasiak zeuden lanak amaitu ahal izateko".

EUSKALDUNA

Edaritegia

Billar-jokorako aretorik aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47

BILLABONA



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

Herriz herri

Ur-hornidura berria eta gas propanoa



Akabo ur gabezia.


Ur-hornidura berriaz eta gas propanoaz baliatu ahal izango dira aurrerantzean Larraulgo biztanleak. Urtegi eta instalakuntza berriek nahi baino gehiagotan izan den ur gabeziari, behingoz, aurre egingo diotelakoan ekin diote lan honi. Gas propanoa jartzea, hasiera batean, zenbait bizilagunen ekimena izan zen, baina azkenean, beste batzuen eskariak ikusita, herriguneko etxeak hornituko dituen gas-biltegia jartzea erabaki du Udalak.

Orain dela hamar urte egin eta gaur egun erabiltzen den Usarrabiko urtegia bere horretan mantenduko da, hala ere, aspaldi konturatu ziren urtegi honek sasoi lehorrenetarako ez zuela nahikoa ur biltzen. Orain urtegi berria egingo da, aurrekoa baino pixka bat urrutiago, lehengo hodiak aprobetxatuko dira eta gainera, depuradora ere jarriko da, era honetan orain arte ur kloratua jasotzen ez zuten baserriek aurrerantzean jaso ahal izango dute.

Duela lau urte egin zitzaion Diputazioari eskaria. Ehun mi-

lioiko aurrekontua duen lan honi orain dela gutxi eman zaio, hala ere, oniritzia eta lanei udaberri aldean emango zaie hasiera. Diputazioa, Mendi Nekazaritza Elkarteak eta Udalak ordainduko dituzte lanak, laurogei, hamahiru eta bederatzi milioi bana gastatuz.

"Larraulen, dagoen tokian egonda ere, ur eskasia izatea ez da hain gauza bitxia", dio Antton Amunarriz alkateak, izan ere, herria bi erreken artean egon arren, Alkiza eta Asteasu aldera jotzen dute eta Larraul tartean



gelditzen omen da, urruti samar. Dena den, lan haueri esker, luzaroan behintzat, ez dela arazorik izango dio Anttonek.

Bestalde, orain arte hamabostean behin joaten zen butano-banatzailak ez du horrenbeste bonbona banatu behar izango, aurrerantzean, herriguneko etxeek gas propanoa erabiliko baitute. Hasieran gutxi batzuen ekimena izan zen ideia hau, baina beste batzuek ere interesa zeukatela ikusita, guztientzat gas-biltegi bat ezartzea erabaki du Udalak.

OHARRAK:

- Udaletxe zaharrean lau etxebizitza eta beherago familia bikoitzeko bi etxe egiteko asmoa dauka Udalak. Interesatuak udaletxera jo dezakete informazio eske.

- Oraindik ere argazki zaharren erakusketarako inork argazkirik izango balu, jar dadila harremanetan Udalarekin, nahi izanez gero herriko gazteren bat joango zaio etxera argazkiaren bila.

IZARBERRI

PUNTA-PUNTAKO GRAFIKAGINTZA ETA INPRIMAKIGINTZA ZURE
BEHARREN NEURRIRA


INPRIMATEGIA GRAFIKAGINTZA

USURBIL

☎ 36.20.59

Herriz herri


II. Gazte Astea



Aurten bi urte bete dira Kostata Gazte Asanblada sortu zenetik. Gazte Asanblada honetan hamazazpi urtetik hasi eta hogeita hiru urte bitarteko gazteak dira partaide, nahiz eta adin mugarik ez egon. Hasiara batean ekitaldiak antolatze-ko motel samar ibili

baziren ere, aurtengo plangintza txukun txukun ari dira, partaideen esanetan, betetzen.

Ekitaldiei dagokienez, besteak beste, Gazte Asteari eman diote garrantzi handiena. Otsailaren 28an hasi eta martxoaren 5a bitartean ekitaldiz gainezka egon da Zizurkil. Hauek dira astean zehar izan diren ekitaldiak: filme



Aurten fin ari dira lanean

emanaldia; arrazakeriari buruzko hitzaldia SHARP taldeko kideen eskutik, Legazpiko antzerki taldearen laguntzaz buruturiko haur-jolasak; "Niri berdin gertatu zitzaidan antzeslan antimilitarista, eta amaitzeko, larunbata gauean kontzertu mundiala Bizkar Hezurak, Ehun Kilo eta Beti Mugan taldeekin.

Kostatako kideek jendearen partehartze urria salatzea dela iruditzen bazaie ere, datorren ur-

tean beste Gazte Aste bat izango dela ziurtatu dute, izan ere, bideak urratzeko gaitasuna frogatzeaz gain, gazteen arteko harremana sendotzea ere lortu baitute.

II. a bukatu bezain laster Gaztetxea hizpide.

Gazte Astea amaitzearekin batera Gaztetxe bat lortzeko lanean murgiltzeko asmotan dabil Kostata, orain artean behintzat ez baitute topagune independente-rik izan.

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena
gazteriarentzat

ANGAS

GERMAN MARTIN GARCIA
Gasarentzako instalazioak
Propano tankeak
Berogailuak
Juan XXIII plaza, 3 - 36 62 18 - LASARTE



69 04 47
ZIZURKIL

JĀTĒXĒA
TABERNA

ESPEZIALETĀTEĀ: ARRAI ERREĀK

EUSKAL SUKALDARITZA
HERRIKOIA

EGUNEROKO BAZKĀRIĀK

Ostegun arratsaldean itxita, bazkariak eman ostean.

Aduna Altzariak



Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta


Elbarrera auzoa, z/g
69 15 62 - 66 - Faxa 69 34 66
ANDOAIN

-ANDOAIN-

Hiru urtez zubipea bizileku


Ezin etxerik eduki zentsatu gabe egonda, eta nola zentsatu etxebizitzarik izan gabe?

Andres, Facundo, Alfredo, Pascual, Tamara, Michael eta José; Euskal Herrian jaiotako ijito-familia baten hirugarren belaunaldia.



19

"Puente Txistoki (chabolas)". Andoaingo helbide honetara ere iristen dira gutunak. Ez da urbanizazio berri bat. Txistokiko zubia pasa, eskuinetara jo eta ibaiertzean dagoen ijitoen bizilekuaren helbidea aurki daiteke.



Ana eta Jose txikia etxeko atarian

Bilbo, Hernani eta Donostian jaioak.

Heldu orduko zazpi zakur jarriko zaizkizu inguran eta haien atzetik beste hainbeste ume zertara zoazen edota euskaraz ba al dakizun galdetzera. Andres, Facundo, Alfredo, Pascual, Tamara, Michael eta José oso segidan jaiotako anai-arrebak dira. Euskara eta erdara nahasten dituzte hizketarakoan, baina ez dakite "calé" a. Eskola Publikoko ikasle dira eta bertan ikasi dute, besteak beste, makina bat euskal kanta. Ana, neska-mutilen amak ez luke nahi ordea, beraien jatorrizko kultura ahaztu dezaten, hori dela eta ijito-doinuak ipintzen ditu tarteka kasetean.

Orain dela hiru urte heldu zen ijito-familia hau Andoainera. Haurren aiton-amonak bilbotarrak dira, gurasoak berriz, Hernanin jaio ziren, txabola inguruan gelditu ere egin gabe ibili ohi diren umeok Donostian jaiotakoak dira eta hauen seme-alabak batek daki non jaioko diren. Izan ere, ijitoak berezkoa du nomada izatea, hauek Euskal Herriatik irtetzen ez diren nomadak diren arren.

Euskal kanta bai, baina baita ijito-doinuak ere

Andaluziar itxurako patioa.

Umeak gutxi balira, hamabost oilo eta zazpi txakur dituzte jaten emateko. Eskerrak sikiera txakurrek "etxea" zaintzen duten eta oiloek arraultzaren bat edo beste ematen dieten.

"Sintasol" ez estalitako egurrezko etxe honen "horma" plastikozko lorez betetako loreontzi batzuek apaintzen dute. Andaluziar patio baten itxura eman nahi izan diotela soma daiteke. Etxearen alde batetik bestera dagoen sokatik zintzilik "Comac" zegoen hortan dauden pabiloiak uzten dieten urarekin garbitutako arropak.

Familia honi bisita bat eginenez gero, gauza askok harritu

Erreportaia

zaitzakete. Txabola bat dute bizileku, baina ez zaie telebistarik falta. Generadore txiki bati esker lortzen dute nonbait argindarra. Gasolina behar dute generadorea martxan jartzeko eta horretarako dirua dutenean ondo, ilundu orduko pizten dute argia. Dirurik ez dagoenean berriz, garraiz oheratu beste erremediorik ez zaie geratzen.

Argindarra alferrik ez gatzatzeko arratsaldeko azken eguzki-izpiak ezkutatu arte kanpoaldean egoteko ohitura hartua dute: haurrak, oraindik eskolatik etxeko lan gutxi ekartzen dutenez, jolasean eta helduak berriketan. Atarian, kafetegietako terrazen antzera hiruzpalau aulki zuri mahai baten inguruan. Hortxe pasatzen dute arratsalde bat baino gehiago Ana eta bere koinata Marcelinak.

Anak hogeita zortzi urte ditu. Ez du gogoan ezkontza egunean hamalau, hamabost ala ha-

Telebista, behintzat, ez dadila falta

masei urte zituen. José du senarra. Txatarra eta kartoiak bildu eta saltzen poltsikoratzen du jor-nala. Zeregin honetan Anak laguntzen dio ahal duenean. Sarritan ordea beste hamaika gauza egin behar izaten du: hain maiz gaisotzen zaizkion seme-alabak anbulatoriora eramanez, esaterako. Negu hau oso gogorra gertatu zaie, hezetasunaz gain, euri egunetan barruraino sartu izan zaie ura.

Zenbaitetan eskean ere bai.

"Todas las tardes me gusta bajar un rato" dio Marcelinak. Anaren koinata Andoainen ber-

tan bizi da. Hamazazpigarren poligonoan, bukatu gabeko etxearen ondoan jarri zuen ahizpak eman zion karabana. Momentu honetan ez du senarra berarekin eta berak bakarrik hazi behar ditu bost seme-alaba 25.000 pezetako pentsioarekin, horregatik eskean ibili behar izaten duela dio, barkamena eskatuko balu bezala.

"Andoainen zentsatua egoteko hemengo etxebizitza batean bizi behar duzu eta etxebizitza lortzeko Andoainen zentsatua egon", honelaxe erantzuten dute pisu batean zergatik ez diren bizi galdetzean.

Momentuz behintzat ez dirudi berehala joango direnik, Anak atarian erratza pasatzen zuen bitartean erreportaia kaleratzean itzulpena eramateko esan baitzigun eta baita guk eramanez ere.

Idoia San Sebastian

Lau anai-arrebak txoritxoaren zain.



-ASTEASU-

Asto probetan



Asto probalariak:
Beltxa eta Zarra

22 Gure inguruan, maiz, uste baino gauza bitxiagoekin egiten dugu topo. Oraingo honetan, Asteasura hurbildu gara, asto probetan iaioak diren bi lagunengorabeherak jakitera. Jose Antonio Arruti eta Jose Ignazio Esnaolarekin eduki dugun solasaldia eta gero, asto frogenginguruan zertxobait gehiago jakiteko aukera izan dugu.

Goizaldera bi lagun hauekin elkartu gara eta astoak ere euren jardunetan ikusi ahal izan ditugu. Jose Antonio hizlaria, Jose Ignazio ixilagoa. Bien artean, gure jakinnahia asetzeko adina kontu kontatu dizkigute. Baita Bizkaiko azken proga bidez ikusteko aukera polita izan ere.

- Nola hasi zineten asto proba hauetan?

- Beno, asto frogak gustatzen zitzaizkigun eta Aginagako lagun batzuk esanda, bertara asto bat ikustera joan eta erosi egin genuen. Ekarri genuenean, kamioi gurpil handi bat koilarean jarri eta entrenatzen hasi ginen, hiru hilabetetan. Baina asto harekin ez genuen zorte handirik eduki. Asteasun zegoen bostehun kiloko harriarekin frogatzen hasi ginen, astoa baratzean ito egin zitzaigun. Gero, Mandubitik ekarri genuen lehenbizikoa eta handik hila-betera, Ordizitik bestea. Halaxe hasi ginen eta orain ezin utzi. Irabazirik ez, baina gustora gabiltza eta.

- Nolakoak izaten dira proba hauek?

- Plazan astoarekin jarri, harria koilaretik lotuta jarri, pisatuta edo pisu librean, eta denbora konkretu ba-



Jose Antonio eta Jose Ignazio

Elkarrizketa

tean zenbat plaza egiten diren da kontua.

- Pisu librea...

- Pisu librekoan, denek harri berdira ibiltzen dute. Normalean horretarako asto txikiak ez du balio izaten, karga gehiegi. Pisuatua, asto txikia fina izaten da. Gu pisu librean ez gara ibili, beti pisatuta.

- Jende asko inguratzen al da horrelako probetara?

- Hemen ez asko. Inguru hauetan ez dago afizio handirik, Bizkaian berriz, nonnahi. Pisuatua, pisu librean...denetan.

- Bizkaian ibiliak zarete.

- Bai, noski. Orain lau urte joan ginen lehenbiziko aldiz ikustera eta hurrengo urtean apuntatu egin ginen. Hirugarren urtea da joaten garena. Deitu egiten digute ez al degun joan behar, utzi nahi ez eta ibili egiten gara.

- Aurten Bizkaian lan polita egin omen duzue.

- Bai, oso gustora gelditu gara. Lehenbizikoa errege egunean eta bigarrena handik hogeita hiru egunetara Busturian. Beltzak hogeita minututan berrogeita hamar buelta egin zituen, honek hamar minutu ditu hiru plazakoak. Zarrak berriz, berrogeita hamar buelta t'ardi eta azken minutuan lau plaza egin zituen. Orain arte izan ditugun marka onenak.

- Bizkaiaz gain, hemen inguruan zuek ikusteko aukerarik bai?

- Bai, Aginagan ibiliak gara. Zizurkilko plazan ere, eta Asteasun San Pedrotan ere ateratzen gara.

- Asto gizaixoak...

- Asto gizaixoak? Zerbait egin beharko dute ba! Ezin beti ikuilun jan eta jan egon.

- Astoak ezin beti dena egin eta zuek ere proba horietan paper fina duzue ez?

- Bai... Guk astoari karga eramaten



Egunero entrenatu ohi dute.

lagundu eta plaza bukaeran marra bat daukagu pasa ezin dena. Horrela, ba, gelditu eta astoari buelta ematen lagundu eta...

- Astoa gelditzea askotan zaila izango da ba.

- Astoak probetan ibilita ikasi egiten du ta pixkanaka errezagoa izaten da. Batzuetan kaskagor jartzen dira baina tira.

- Entrenamenduak oso maiz egiten al dituzue?

- Baserriko lana bukatu eta gero, ilunabarrean egunero. Ordu laurden, ordu erdi...depende. Ez da asko baina nahikoa.

- Irabazteko aukerarik?

- Saiatu egiten gara, ikusi behar. Nahi bai baina...

Astoak harria garraiatzen ikusi eta gero bertan utzi ditugu Asteasuarrrak. Ea hurrengoetan zorterik bazuozuen!

- Bai, bai hala espero.

Lehenengo astoa baratzean ito zitzaientetik asteburuak alde batetik bestera igarotzen zituzten asto bila. Azkenean, Beasain aldean topatu zuten nahi zutena, geroxeago Ordizian bestea, baina ederki kostata, ez astoen kualitate ezin hobek eskatzen zituztelako, Gipuzkoan aberc honen eskasia dagoelako baizik. Asteburu bat bestearen atzetik, dudarik gabe, afizioa behar da baserriarrek izan ohi duten aisialdirako denbora laburra horretan jarduteko.

"Bizkaia aldean asto gehiago dago baina erosleak ere gehiago dira, afizioa nonnahi baitago. Gainera Bizkaitik hona ekartzeko zailagoa da" diote asteasuarrek. Gipuzkoan astorik ez egoteak harritu gintuen, nonnahi aurki daitezkeen animalia arrunta zela uste baiken. Ezin esan gero gure artean astoa besterik ez dagoenik..


Amaia Mujika

Baserrian

-ZIZURKIL-

Nekazal turismo ugari

«Nekazal eta abeltzantza krisiari zenbait alternatiba» izenburupean aurkezten du Zizurkilgo gida-liburuak nekazal turismoa. Lartu, Ziasoro, Goizaldi, Andia eta aurki Mekola dira, arrazoi ezberdinak bultzatuak, azkenengo bi urtetan zerbitzu hau eskaintzea erabaki duten baserriak, batzuk baserriko lanaren bidez irabazitakoaz gain beste diru-sarreraren bat lortzearren, baserri zaharra berritu eta bizirik iraunarazteko beste batzuk. Zizurkil da Gipuzkoako herrien artean, eta biztanlego kopuruaren arabera nekazal turismo gehien duen herria. Iaz batazbeste ehun bisitari inguru izan ziren baserri hauetan *turismo egiten..*



Lasaitasunak erakartzen du bisitaria

Baserri hauek ostatu eta mantenuko turismo zerbitzua eskaintzen diote bisitariari, egun indarrean dagoen eskaintzarekin alderatuz nahiko ezberdina hala ere, izan ere Euskal Herrian duela lau urte ekin zitzaion iharduera honi, European orain dela hogeita bost urte hasi baziren ere. Zizurkil alde-
ra jotzen duten bisitariek Ernio eta Aia inguruko parajeetako lasaita-

suna bilatzen dute gehienetan atsedeen hartu asmoz, Lardamuñon pottoketan ibiltzea ere oso gogoko omen dute Andiako Bernardo Arregik kontatu digunez eta azkenik, herriko jaietan hartu ohi dute, nonbait, gozamenik handiena. Honez gain Euskalerrria ezagutzeko jakinminez hurbiltzen dira gehientsuenak eta baserriarekin izan ohi duten hurbileko harrema funtsezkoa izan ohi da.




ETXEAN EGINDAKO { TXERRIAK
ETA
SUKALDARITZA

HARATEGI EZIN HOBEA
Juan Bta. Erro, 4 - ☎ 59 36 00
ANDOAIN

ATARRAIA
Edaritegia

Pintxo hotz eta beroak

Kaleberria, 11 - ☎ 59 37 38
ANDOAIN



ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK

AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN



GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA

GIRO EDERRA!!

KALENAGUSIA, 20 - ANDOAIN

Baserrian

Euskal Herria ezagutzeko naha.

Euskal Herria ezagutzeko desioa, jakina, kanpotarrena izan ohi da, eta huexek dira hain zuzen ere nekazal turismo gehien egiten dutenak: %80a kataluniarrak dira eta %10a madrildarrak. Nafarrak eta arabarrak ere gipuzkoarrak baino askoz ere ugariagoak izan ohi dira. Udako hiru hilabeteetan ibili ohi da jende gehien, halaber zubi, udaberri eta udazkeneko asteburuetan ere baserriak askotan bete egiten dira. Hogeita hamar eta berrogeita hamar urte bitarteko bikoteak izan ohi dira nekazal turismo gehien egiten dutenak, baita kuadrila gazteak ere.

Gehienak gazteak.

Nekazal turismoa eskaintzen duten baserriarren %90a gazteak dira, askotan gurasoen baserria zutik mantendu nahian hartu dute bide hau, hala ere, Bernardok berak gustoko omen du bisitariekin harremanak izatea eta elkar ezagutzea, gainera «hau da, azken batean, nekazal turismoaren publizitatea egiteko modurik onena, hau da, eza-

gutu eta batak besteari kontatuz» dio. Gustoko giroa aurkituz gero beste behin ere itzuliko omen da bisitaria.

Bukatzeko aipatu nekazal turismoari ekin nahi dion baserriarrek Diputazioak ezarritako baldintza batzuk bete behar izaten dituela. Urtebete geroztik baldintza gogorragoak ezarri dituzte: nekazal hustirakuntza behar bezain handia duten baserriarrei baino ez zaie aukera ematen, era honetan kopurua mugatu eta baserri bizi den baserriarri soilik mugatu nahi da esparrua. Honez gain kontuan hartzen den beste baldintza bat baserriararen adina da, jende gazteari batez ere zuzendu nahi zaio bide hau. Baserria berritzeko nekazal turismoa egitea erabaki duten baserriarrek bost urtez eskaini behar dute ostatu zerbitzua, guztiz baserri berria egin behar duenak berriz, hamar urtez.



Andriako Lurdes eta Ukar


25

Turismo zerbitzua, baina oso bestelakoa

GYRE LAVBIDE, S.L.

ERABILERA PROFESIONALERAKO NOLA PARTIKULARRERAKO AUKERA GUZTIAK

Motoaitzurak - motozerrak -
sasikengailuak - segak -
sulfatailuak - generadoreak -
ordezkoak - eranskinak



Zure baratza eta lorategirako makinak

BELARRA BIRZIKLATZEN DUTEN MAKINAK!!

Nazional 1 errepidea, Bazkardo bidegurutzea
☎ 59 01 78 - ANDOAIN

STIHL
Kubota
Husqvarna
AGRIA

Joxe Ramon

Taberna

KALENAGUSIA, 16
ANDOAIN

SPRINT
IZALIRRE
ANDOAIN ☎ 59.23.54

BIZIKLETAK
ETA
MOTORRAK


SALMENTA ETA
KONPONKETAK
OSAGARRIAK

-ANDOAIN-

Kultur ekintza gutxi

Kultur taldeen eta Udalaren arteko koordinazioa areagotu behar da

Herri batean egiten diren kultur ekitaldiak dira hein batean herri horren bizitza neurtzen duten termometroa. Andoaingo egoera nahikoa larria da beraz, azken urteotan antolatu diren ekintzak gero eta gutxiago izan baitira. Termometro horren egoera ezagutzeko Otitako Luis Escudero eta Udaleko Kultur teknikaria den Garbiñe Agirrerekin hitz egin dugu. Otitak dagoeneko lau urte egin ditu lanean eta une honetan zazpi talde biltzen dira bere baitan. Talde bakoitza bere esparruaz arduratzeaz gain proiektu amankomunak ere badauzkate.



Kultur taldeak bildurik

Egoera hau gainditu asmoz eta herriko kultur nahiz giza taldeen arteko koordinazioa areagotzeko hainbat kultur talde bildu ziren estrainekoz joan den abenduan. Orduz geroztik hiru bilera egin dituzte, azkena martxoaren 3an. Azken bileraren ondorioak hiru izan dira: lehenik, taldeen asmoak argitu eta elkarren arteko koordinazioa areagotzea; bigarrenik, herriko bizitza kulturalaren egoera aztertu eta helburuak finkatzea eta hirugarrenik, Udalak taldeoi eman beharreko dirulaguntzak zehaztea.

Kontseiluaik erabaki ahalmena beharko luke

Orain artean Kontseilua izan da era ezberdinetako taldeak elkartzeko topaleku bakarra, baina, Otitako taldekideak adierazi

duenez duela urtebetez geroztik etenda dago eta etendura hau larria iruditzen zaio, herriko bizitza sozio-kulturalen eragiten duelako. Hala ere, organu kontsultiboa beharrean Kontseiluak erabakiak hartzeko ahalmena behar duela uste du Otitakoak, egindako bilera asko hutsean geratu baitira. Izan ere, Kontseiluak erabakiak har baditzaie ere, Udalak du azken hitza.

Etorkizunari begira alderdi politikoen kultur arloan duten egitaraua argitara ematea ezinbestekotzat jo du Otitako Luis Escudero, eta baita Udalak taldeei bideratu beharreko dirulaguntzak zehaztea ere, "baina, jakina, zehaztu eta baiezkota eman ondoren eskuratu behar duguna ahalik eta azkarren jasotzea eskatzen dugu, zenbait ekitaldi egiteko gure poltsiko-

Kultura

tik ipini baitugu dirua". Honenbestez, jaso beharreko dirulaguntzak atzerapen dextenterekin jasotzea gaitzetsi egin du.

Hal ere, dirulaguntzak emateaz gain beste ardua batzuk ere badituelakoan dago. Sortzen ari diren taldeei azpiegitura eta lan teknikoak erraztu eta lagundu behar zaiela uste du. Izan ere, laguntza eskaini beharrean, trabak ezartzen omen zaizkie.


"Andoaingo kultur bizitza kaskarra da arazo guztion emaitza. Udalak duen egoera ekonomiko larriak eragina izan du honetan, baina baita herritarren pasibotasunak ere", aitortu digu, "horren adierazgarri da azken hilabeteotan antolatutako kontzertu, antzerki saio nahiz kantaldi urriak". Era berean animatzaile sozio-kulturala komenigarritzat jotzen du, bulegoko lana egiteaz gain kultur arloan kaleko ikuspegitik ere lan egin behar dela arrazoituz.

Deskoordinazioa gainditu beharra

Garbiñe Agirre Udaleko Kultura teknikariaren ustetan, kultur egitarau edo aurrekontu eza izan

litezke azken urtean Kultur Kontsilua ez biltzearen arrazoia, "Kontseilua ez da ekitaldiak antolatzeke organua, ezta kultur ekitaldien programa bakarrik antolatzekeoa ere. Baditu askoz ere funtzio garrantzitsuagoak, hala nola, herriko egoera zein den aztertu, zein hutsune dagoen eta zer hobetu litekeen ikustea", eztabaida foroa dela nabarmendu digu, azken finean.

Honez gain, Kultur teknikariaren irudia eta animatzaile sozio-kulturalarena bereiztu egin ditu Agirrek: "Andoain bezalako herri batean animatzaile sozio-kulturalak ezer gutxi konponduko luke une honetan", animatzailearen zeregina programa zehatz batzuk jende jakin batekin lantzea baita bere aburuz. "Kultur arloak duen hutsune handiena taldeen eta Administrazioaren arteko elkar ulermen eza da" dio. Honek, emaitzak izan zitezkeen bezain onak ez izatea dakarrela gaineratu du Kultur teknikariak "egoera hobetzeko, beraz, deskoordinazioari irtenbidea ematek hasi behar da".



Urigain kultur etxea.

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Ikatz

Taberna

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89
ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 - ANDOAIN

OLAZABAL

ITURGINTZA

BEROGAILUEN INSTALAZIOA
UR BEROA
ITURGINTZA
E-G IV GASA

J.Larreta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66
ANDOAIN

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 - ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK

EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58


ANDOAIN

-BILLABONA-

Kirola egin? bai, baina non?

Eskualde mailako kiroldegiaren proiektua martxan.

28 "Mens sana in corpore sano" eta antzekoak entzute-ra ohituak gauden arren, kirol bat edo beste egiteak izan ditzake eragozpen bat baino gehiago, horien artean azpiegitura gabezia. Pedro Miguel Alonso kirol irakaslea da eta era berean Billabonako kirol plangintzarako arduradunetako bat. Bere ustez egungo egoera aldatu beharra dago: "Kontuan hartu behar dugu Billabonako biztanle ugari kanpora joan beharra daukagutela kirola egitera bertan ez baitago nahikoa leku".



Amasako pilotalekua.

Bestalde, gaurko instalakuntzak, Arratzaingo pista estalia eta Amasako pilotalekua, txiki ari dira geratzen. Amasan pilota eskolak eta gainerako zaleek asteko ordu gehientsuenak osatzen dituzte eta Arratzaingo pista estalia berriz, Fleming eskolak soinketarako eta eskolarteko txapelketetako entrenamendu eta partiduetarako erabiltzen du.

Honela ba, kiroldegia beharrezkotzat jotzen du Pedro Mari Alonsok; alde batetik, kiroldegia herrian bertan izateak lagungarri izan daitekeelako herritarrentzat eta bestetik, kiroldegiak herriko kirol taldeentzako esan nahi duen aban-

taila kontuan hartu beharra dagoelako. Hala ere, kiroldegi berriak badu bestelako eragozpenik gaur egun: bere eraikuntza eta mantentze garestia, alegia.

600 milioi behar dira kiroldegi berrirako

Nolako kiroldegia?

Udalak badu dagoeneko kiroldegiaren proiektua mahai gainean, Luis Peña Gantxegi, Rocio Peña eta Mario Sanglik eginikoa, hain zuzen ere. Oraindik ere xehe-

Kirola

tasun batzuk zehaztu gabe badauzkate ere, zenbait idea aurreratu dizkigute: eraikuntza trinkoa izango da Subijanakok lurretan egingo dena, era honetan leku gehiago geratuko da ibai ertzean lasai ibiltzeko, halaber kiroldegia zuhaitz eta belarrez inguratuko da nolabaiteko gune berdea osatuz.


Igerilekuak beheko solairuan egongo dira, bata 125 x 25 metro izango ditu eta besteak 125 x 8 metro. Igerilekuaren gainean taberna egongo da, bertatik igerilekura edota terrazara irten ahal izango da. Igerilekuak tabernatik ere ikusi ahal izango dira. Honen gainean pista egongo da. Solairu berean gimnasia egokitutako bi gela ere egongo dira. Rokodromoa hasiera batean kanpoan egitea pentsatu bazen ere, azkenean, ziur aski, kiroldegiaren horma batean ezarriko da. Sauna eta masaiarako gelak non kokatuko diren oraindik ez dago zehaztua. Kiroldegia 600 eserleku izango ditu.

Eskualde mailako kiroldegia izan nahi du honako honek, era honetan Ernio Beheak bere kirol azpiegitura osatua izango luke eta Billabona, Zizurkil, Asteasu, Larraul eta Adunako biztanleek kirola hurbilago egiteko aukera izango lukete.

Nola ordaindu?

Proiektua guztiz zehaztu gabe baldin badago ere, bere kostua 600 milioitakoa izango dela aurrikusten da. Dirua eskuratzeko bi bide aipatu dira: Diputazioaren dirulaguntza batetik, gehienez ere 270 milioi, eta Udal ezberdinen diru ekarpena bestetik. Momentuz Zizurkilgo Udalak baiezkoa eman dio proiektuari, baldin eta Billabonako Udalak Zizurkilgo pentsatua dagoen kirol-jolasaldeari oniritzia ematen badio behintzat.

Bilera berri bat egiteko asmoa daukate aipaturiko Udalek, finantzazio bide ezberdinak jorratu asmoz. Hilabeteren buruan ekuzio proiektua esku artean izatea espero dute.



Arratzaingo pista.

LEITZ
MENDIKO BIZIKLETAK
 Ankoras kalea, 4. ☎ 30-04-69
 ANDOAIN - GIPUZKOA

INCARGI
 KALITATEKO URDAIAZPIKOA
 Joxe Ramon Jauregi Tapia
 Gudarien Etorbidea, z/g - 8. Industri Poligonoa
 Telefonoa 30 02 34 - Faxe 30 01 87
 ANDOAIN

GARBI
 Drogeria
 Lurrindenda
 Kale Nagusia, 18 - ANDOAIN

PINTXOAK ESPEZIALITATEAK:
 OGITARTEKOAK PERRETXIKOAK
 GOSARIAK LABEAN
 ETA NAHASKIAK
 MENDI
TABERNA
 KALE BERRIA, 12 ANDOAIN

51
ZIENTZIEN AKADEMIA 51
 Matematika, fisika eta kimika
 MAILA GUZTIAK
 Goizez eta arratsaldez
 Kale Nagusia, 51 - ☎ 59 33 79 ANDOAIN

ASTIGARRAGA
 Bainu gelak Linterneria
 Kristaldegia Berogailuak
 ERAKUSKETA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61
 ANDOAIN

29

-ANDOAIN-

Joxe Zalakaini, Joxe Bazkardori zor diogu bertso-paper hauek gaur eguneraino heldu izana. Hark jaso baitu urte luzeetan bere aitak, Martin Lontxo Zalakainek, utzitako bitxi preziatu hau.

Garate baserrian jaio zen Joxe Zalakain. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Pagoartekoa. 1909an Garate utzi eta Sorobillako Bazkardo baserrira jeitsi ziren. Artean zazpi urte zituen. Horrela, bada, Bazkardon eman ditu ia bere urte gehientuenak gure aitonak. Gaur egun 91 urte dauzka.


Sorobillako Bazkardo baserria, beraz, izan du urteetan eta urteetan bertso-paper honek gorde-leku.

Zaharra eta ezezaguna izaki nonbait, berriki jakin dugu altxor honen jabe ginela. Hemendik aurrera eta Aldizkari honen bidez Andoaingo herritarren eta bertsozale guztien gozamenerako izango dela espero dugu.



ESKARNE LOPETEGI ZALAKAIN

Izango duzu, ziur, ezagutzera ematera merezi duen lehengo argazki edo erretraturen bat. Argazkiarekin batera bidaliezaguzu azalpen txiki bat idatziz.




Dietetika
eta Belardenda

ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta
Iridologia
Masajea
Estetika
Akupuntura
Ile tratamenduak
Pisu terapiak

Paño Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

TOLOSA
ANDOAIN



MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

BENTA

Sagardotegia

Espezialitateak, bakailu
frijitua, txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO ERREPIDEA
☎ 69 30 94

Berso berriac bost mutillen bizimodubaren gañian jarriac.

-1-
Milla bederatzireun da
Aurten iru urte,
Cristo jayo zanetic
Oneraño arte;
Gure bizimodu au
Dala mediante
Bersuac paratzeco
Encargatu naute.

-2-
Ceruco Ama santa
Birgiña María,
Triste dauden guzien
Consolatzallea;
Arren argui zadazu
Nere memoria,
Cantuz esplicatzeco
Gure istoriya.

-3-
Irabaziyen gabilza
Trozuen lanian,
Erritican aparte
Menditic aldian;
Chabolán lo eguiñaz
Garuan gañian,
Bizitzén ezta errez
Gaur dan egunian.

-4-
Arriba eguiten du
Oso goizetican,
Triste jequitzen guera
Garo gañetican;
Maldicioa sarri
Iru lautatican,
Errezo onic badago
Gure artetican.

-5-
Lauterdietan jaiqui
Bostetan lanera,
Buruba macurtuta
Or juaten guera;
Errengatuzten bucltan
Gaban atzera,
Arcacusoarequin
Dibertituzera.

-6-
Lanian aitzen guera
Igade ta aste,
Batsuelan alegre
Bestietan triste;
Gorputzentzat nequian;
Animantzat calte
Guizon jaquintzu oyece,
Ala esaten dute.

-7-
Culpitotic ai dira
Beti deadarrez,
Anima galtzen dala
Jayetaco lancz;
Escaporic eztago
Oyee diotenez,
Diruba aurreratzen
Etzioc gaur errez.

-8-
Conseju onic asco
Badet neretzaco,
Sasoyan dot on bat
Aurreratutzeco;
Choruaren moduban
Ez ibilitzeco,
Andria artu eta
Erretiratuzeco.

-9-
Ezta errez zembait nesca
Andretzat artzia;
Obeda lenengotic
Errepatutzia;
Suertatuzten bazayo
Engañatutzia,
Bizi dan arte ezin
Quendu gurutzia.

-10-
Ichuran onac daude
Zembait nesca gazte,
Embusteriya franco
Engañatu arte;
Doncella egongo naiz
Esposatu arte,
Aberatzaquin jolastu
Dirubaren truce.

-11-
Diruac engañatzen du
Emacume asco,
Guero galdutzen dira
Beren demboraco;
Ezer guchi asco da
Conduta galtzeco,
Au gauzaric charrrena
Gaztiarentzaco.

-12-
Nesca sartuta ere
Icusten ditut nic,
Gaztelaco orgulluac
Danac bajaturic;
Nobiyo gustocoric
Ezin billaturic,
Beren bizimoduaz
Desesperaturic.

-13-
Len alaco auquera
Alperic galduta,
Sasoya juanda guero
Daude damututa;
Beren tocamentuac
Echetic artuta,
Asco sartutzen dira
Comentuan monja.

-14-
Bost mutillen artian
Eguin degu junta,
Aurten ezcontzen eztanac
Milla errial multa;
Iñola ezin libratu
Leique ucatuta,
Diruba dagolaco
Depositatuta.

-15-
Lenago ze- -na
Ezin billatuta,
Orain ere eztago
Ascuratuta;
Aurten etorizen ez dana
Andria artuta,
Triste guedituco da
Dirubac galduta.

-16-
Izenez esango det
Banaca banaca,
Iñore jaquin nai badu
Ala ohea da ta;
Azpeitiarra da bat
Manuel arotza,
Andria artutzeco
Onc daucan poza.

-17-
Goyerriarra berez
Francisco errecua,
Berez euscalduna da
Guipuzcoanua;
Mutil ona da guztiz
Gañica zintzua,
Ez zembait bezclaco
Buru gaiztocua.

-18-
Antonio Ermani
Zallian sarena,
Len bi ezan ditut nic
Au irugarrena;
Orrec emana daucat
Nic dedan ordena,
Cantac jartzia zala
Gauzaric onena.

-19-
Diruac jaso litezque
Andria artuta,
Irabazten duenac
Arrazoya du ta;
Naizta echian guero
Gauza asco palla,
Ala ere ezconduco da
Ignacio Laca.

-20-
Bestia Sebastian
Arruabarrena,
Sosiyu lagun onac
Datoz neregana;
Griña bat badu orrec
Jaincoac emana,
Ezta gaizqui bizico
Au artzen dubena.

-21-
Francisco eta Manu
Anton eta Laca,
Sebastian daucagu
Bostgarren jarrita;
Iñor arquitzen bada
Nobiyoric ezta,
Datorrela Andoaña
An bizi guera ta.

-22-
Gaztiac ez gueratu
Ezcondu gabiac,
Sartuta eztauzcagu
Alderdi obiac;
Norc bere andria ta
Besteren umiac,
Mantendu biarco dizquic
Mutil zar pobriac.

-23-
Asco apartatzen dira
Senar emaztiac,
Batzubec zarrac eta
Bestiac gaztiac;
Gaizqui bizitzen dira
Munduban tristiciac,
Gauz orretatic datoz
Endredo guztiyac.

-24-
Orra eusquerazcuac
Ogeuita lau berso,
Ez dirade gueyegui
Caso orrentzaco;
Iñore gogoric badu
Paperic artzeco,
Amarna sentimuan
Dauzac nic saltzeco.

Tolosan: E. Lopez-en Moldizteguien

-ANDOAIN-

Konpartsa berria udazkenerako

Duela bi urte aurkeztu zuen Kitto Gazte Elkarteak Andoaingo erraldoi eta buruhandi konpartsaren egitasmoa Udalan hiru milioi t'erdiko aurrekontuaz lagunduta. Udalak oniritzia eman eta beste hainbat konpartsa egin dituen Jesus Mari Ganuza iruñearrari eman zion enkargua. Udazkenerako lana amaitua egongo dela pentsatzen da eta aurkezpen-jaia azaroa aldean egin ahal izango delakoan daude, aldez aurretik herritarrei ere aurkezpena egingo zaie konpartsaren xehetasun guztiak azalduz.



Azelaingo señoritoa



Juan Legarraren alaba

Arrazoi nagusi batek bultzatu ditu Kittokoak konpartsa berria egitera, herrian beste bat izan arren: "Gaur egun Andoaingo erraldoi eta buruhandi taldeak ez du pertsonalitaterik, ez dago Andoainen inguruan definitua, bertan agertzen diren pertsonaiak oso orokorrak dira eta gure herriarekin ez daukate zerikusi handiegirik". Honez gain dantzarako ez omen dira oso egokiak, batetik, pisutsuak direlako eta bestetik, zaharkituak daudelako.

Herriko historiako pertsonaiak

Eta hain zuzen ere oraingoan nortasun eza gainditu nahiean Andoaingo historiako pertsonaia eta gertakizun seinalagarrien izaera hartuko dute buruhandi eta erraldoi berriek. Tradizioz pertsonaiak hiru giza taldetan banatzen dira: errege-erreginak, zaldunak eta herri xheea. Konpartsa berri honi dagokionez errege-erreginen ordezkari ospe eta izen handiko andoaindarrak

Juan Legarrak Felipe V.aren erregetzan goi-mailako karguak izan zituen, besteak beste: Haziendako kontseilari, "Sala de Millones" delakoaren idazkari, "Despacho Universal de Indias y Marinas" delakoaren lehen ofiziala eta "Real Junta del Tabaco" erakundeko partaide. Segurako 1724ko Batzar Nagusiak Gipuzkoako Diputatu Nagusi izendatu zuen.

Mende honen lehen laurdeneko gipuzkoarrik aipagarrienetakoa da Azelaingo señoritoa. 1901an "Euskaltzaleen Biltzarreko" partaide izan zen. 1910ean "Euskal Esnaleko" idazkaria, 1912an Andoaingo alkate izendatu zuten eta 1912an Euskaltzaindia sortu zenean Gipuzkoako ordezkaria izan zen.

aukeratu dituzte: Juan Legarra Etxebeste eta Juan Bautista Larreta Arzac "Azelaingo Jauntxoa", lehena XVII. mende bukaerako jauna eta bigarrena XX. mende hasierakoa. Zaldikoak berriz baztertu egin dituzte eta buruhandi taldeari osotasun handiagoa eman asmoz, Tren Txikiren inguruan izan ziren hainbat pertsonaia eta ofizioei emango diete bizitza, "Plazaolako trenak Andoaingo historian garairik interesgarrientako bat osatzen baitu".

Hogei lagunez osatua

Konpartsak hogei pertsona gutxienez behar ditu, zortzi buruhandi eta lau erraldoi. Hauek lortzeko ikasketxe eta atsedean taldeetara jotzeko asmoa daukate antolatzaileek sasoiko neska-mutilen batzuen bila. Hauekin batera musikari taldea, bi dultzainero banda eta txistulari taldeak osatuko dute, "gure asmoa Andoaingo txistu eta dultzaina eskolako partaideek osat-

Musika

zea da, gazte hauek kalean jotzeko aukera izan dezaten".

Erraldoi eta buruhandi konpartsa aspaldidanik agertu ziren Gipuzkoan, herri txiki gebiene-

tan ere erraldoi, buruhandi, zaldiko eta antzekoen desfileak ohizkoak izaten omen ziren. Kitto taldeak egitasmo hau aurrera ateratzeko konpartsa historiko bat hartu du eredutzat,

Iruñeakoa hain zuzen ere, orain dela 125 urtekoa. Halere Andoaingo konpartsa berriak berezko handitasun eta edertasunaz gain izaera historiko berezia izango du.



Geltokiko nagusia



Makinista



Emakume estraperlista



Olagizona

Plazaola trenbideak 1902an ikusi zuen argia. Leitzarango meategietako burdin minerala Plazaola, Olazar, Olloko eta Gipuzkoako beste zenbait burdinoletara garraiatzeko eraiki zuten. Tren Txikik berrogeita hamar urteko bizitza izan zuen. Bere desagertpenaren arrazoiak bi izan ziren: "Sociedad Minera Guipuzcoana" delako elkargoaren krisia eta 1953.eko uholde izugarria.

Pertsonaia eta ofizioak:

Meatzaria: Plazaolako lehenengo zatiak meategi konpainia batek eraiki zituen, beraiek egin zituzten lehenengo lanak.

Olagizona: Leitzarango meategietako minerala, hasiera batean behintzat Plazaola, Olloki eta Olazarren zeuden burdinoletan lantzen zen.

Ikazkina: Oso hedatua zegoen ofizio hau. Mendian egiten zuten lan taldeka eta hauek egindako egurrikatza burdinoletan lantzen zen. Hauek ere egurra eta ikatza garraiatzeko Plazaolako trenea erabiltzen zuten.

Emakume estraperlista: Gerra osteko gose beharrak hamaika emakume estraperlora bultzatu zuen. Hauek Iruñeako joan-etorria egiten zuten Plazaolako trenean.

Makinista Diotenez makinista batek baino gehiagok diru asko irabazi zuen estraperlo garaian.

Geltokiko nagusia: Ofizio hau trenak iraun zuen bitartean oso ezaguna izan zen.

Arrieroa: Baserriz baserri egin ohi zen merkataritza modu hau oso ezaguna izan zen garai hartan.

Lebiton: Ipuinetako pertsonaia.

OINETAKOAK

MODESTA ARANBURU

Berria kalea, 28 - ☎ 59 03 07
ANDOAIN

HERRI OSTAPUA
TABERNA
JATETXEA

LARRAULGO PLAZA

☎ 69 18 55

Begi argia



● **Xabier Lasas**

REALITY SHOWen show lotsagarriak

Sukalde zuloraino sartuak ditugu aspaldidanik egunero egunero imajinaren urrezko altzairutik barrena: batzuentzat fikzioari gaindizten zaion errealitate gordinaren informazioa da, besteentzat deformazioa eta tele-zaborra baino ez dena. Jende arrunten samin eta desgraziak kiloka, malkoak litroka; artixten mixeri eta eskandaluak, bikoteen zikiratzeak nahiz eta konbibentzi intimoko trapu zikinak, haur biolazioak, paranoikoen hilketa hunkigarriak, gertaera makabroak, heriotzak, odola borbor... Ikuslearen sentimentalismo, emotibitatearekin, eta, azken azkenean jokatzeko baita morboarekin, bai, gizakiaren pasio morbosoa asegaitzarekin!

Jainko eta Jainkosen karneta eman eta Olinpoetara igo ditugu Lago, Lobatón, Gemio, Herrera eta abar predikalariak. Apareju ederrak bai! Hoienez hitzak eta imajinak, sakratuak egin dira makina bat etxetan, zera! Katez aldatzera ausartzen dena, erruki bedi etxearen hatzaparrek!

Giza-formazio eta kulturizazioaren irizpideak tokitan geratu dira jendeongan! "Zerbitzu sozialaren" mesedetan ari omen. Egia zera da: karrera txoro batean murgilduak dabiltzala, non kalitateak baino, audientzi-zifrak moztzen duten makailua. Eskrupulo moralak, kodigo etikoak, gusto ona... non dira ordea, egingo al didak bilatzearen mesedea, Lobatón jauna?

Telebista-programazio horien aurrean jartzean, gizakia ispilu baten aurrean jartzen omen da. Arrazionaltasun zentzuak baztertu eta animalia legez iharduten aguro, barru barruko txoko instintiboak eskatzen dion morbo gosea betetze bidean. Ispilu aurrean bai, baina ez norberaren, ehl, baizik eta besteentzat desgrazi eta sufrimenduak kontentplazera; zirt-zart bateko mekanismo sikiko batez, esamin arin bat egin, eta, alehop!, norberaren estima goratzen da eta daramakien bizitza normalaz hasperen lasai bat burutzen.

Teleikuslea ordea, historia honetan konplizea ala biktima ote? Bizi-konduktak eta iritzi publikoak aldarazteko hain herraminta perbertsoaren aurrean, kontzientzi kritikorik garatzen ote dugu, ala automaten antzera dena irensten eta asimilatzen, pentsakera askatasuna zeharo moztuz?

Sujerentzi ttiki bat sufrimendua eta emotibitatearen hain zale omen direnentzat: eguardiro National Geographicaren dokumentaletan ere, osagai hoiek erruz bila daitezkeela alegia. Gizakiaren anbizioak eraginda, naturaren suntsiketa aurremeditatua, basoetako pagadi osoen erorketak zientoka, ezintzio bidean dihoazten otso eta abar espezien harrapaketa eta hilketa makabroak... eta den dena telebistatua, en-la-misma-escena-del-crimen esaten dena, aizul!

Hotako ezena bakoitzean isurtzen diren malko, emozio eta bizi nahiak, hok seguru izan, hok bizitza bera baino erreagoak dira...

"ATARI AHANTZIAK".
AURELIA
ARKOTXA.
PAMIELA.



Hendaian bizi den baigorritarraren lehen poesia bilduma da liburu hau. Eztitasunez bezain mikaztasunez jantziriko olerki hauetan, hitz lau eta koplak antzekoetan, jendearen bakantasunaren berri ematen digu, hala nola kolektibitateak jasaten dituen minen salaketa egiten du.

Nafarroatik Italiaraino hedatzen da ingurunea olerkiz olerki, hirien, gauen, gizonen eta haurren amodioaz beterik, koloreen garrantziak eta soinuaren betebeharrak lagunduta.



"OREKA DESOREKAN".
BETI MUGAN.
BISATI
DISKAK.

Hondarrabiko talde hau iaz egin zen ezagun bere lehen lanarekin, LP txiki bat eta single bat kaleratu zituenean. Orain lehen lan luzeari ekin dio taldeak eta estilo aldetik, aurreko lanen ildotik jarraitzen du. Hamahiru kantuz dago diska osatua.

Rec & Play

BIDEO-PRODUKZIOAK

Kaletxiki, 4-2. esk. ♦ 20.140 ANDOAIN ♦ ☎ 943- 59.19.65 / 59.08.43



ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
20140 - ANDOAIN

Iritzi bat

Euskaldunok aurrera atera nahi badugu, aldatzea beste erremdiarik ez daukagu. Aldatu egin behar ditugu gure joerak, gure ideiak, gure ametsak. Ezin dugu jarraitu orain arteko sektarismoarekin zeren zama horrek -Trentokoaren azken ondorioa ote?- leku zinez itsusi eta baldar bihurtuko bailuke gure lur hau. Ezin dugu, neurri berean, teiltatuean geratzen diren kultur jokarekin jarraitu, zeren eta zabaltasunik gabe kultura kaxkartu egiten baita edozein leku oilategi bihurtzeraino. Eta ezin dugu, azkenez, iragan garaictako amets ximpleekin jarraitu, zeren eta XXgarren mende bukaera oso une desegokia baita ximplekeria ororentzat. Helburu guzti horiek, gainera, marko herri bat eskatzen dute: Euskal Hiria, eta ez Euskal Herria.

Euskal Hiria eraikitzeke orduan nahitaezkoak dira auto edo trenbideak, beharrezkoak halaber erakunde berezi batzuk, beharrezkoak batez ere komunikabideak. Euskaraz mintzatzen zaizkigun irrati eta telebistarekin batera hortxe dugu EGUNKARIAK bere lana eta bere erantzunkizuna. Nola ari den? Nolako balorazioa merezi duen milakoa bete duen honetan? Nire ustez, baibainakoa. Bai, egin du bere lana EGUNKARIAK Euskal Hiriaren alde, eta imajinatu ere imajinatzen dut noraino izango zen lan hori zail, astun eta esker txarrekoa; baina, bestalde, sektarioak maizegi azaldu dira bere orrialdeetan, eta hainbat eta hainbat Pello Kirten ere inguratu digute bere arrantzak euskaraz irakur genitzan.

Beste modu batera esanda: zenbaitetan Euskal Oilategiaren alde egin du EGUNKARIAK, eta ez Euskal Hiriaren alde.

Txaloak, beraz, baina bizkorrago ibili aurrerantzean.

*(Euskaldunon Egunkaria, martxoak 1
1000. zenbakian)*

Bernardo Atxaga idazlea

ANTXON URRUSOLO

Merezi dugun telebista daukagu?

IKuslea konplizea da, Reality show- ez hitz egiten dugunean komunikabideez hitz egiten dugu, baina ez ditugu aipatzen saio horiek ikusten dituzten milioika pertsonak. Telebista itzaltzeko aukera denek daukate eta ikusleak helduak direla pentsatu nahi dut.

Telebista aldarte kritikoz ikusi behar da eta hori, askotan esan dut, eskolatik hasita iraktsi beharreko gauza da. Ez legoke batere txarto eskolako ikasgaia izatea telebista. Ezin da estatutik estalinismoarik egin saio batzuk debekatzeko. Nik nahiago dut neure aukera egin fiskal baten aginduaren pean egon baino, horrek saio batzuen mantentzea ekarri behar badu ere.

(Argia, 1994ko martxoak 6)

BALTASAR GARZON

"Nire ustez ez da gezurrik esan behar, are gutxiago politikan. Gehienez ere, egia osoa ez esatea egin dezakegu".

(Egunakaria, martxoak 13)

fotocolor
ERREBELATUA ORDU JEAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a.en erreportaiak
Lan Industrialak



José Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro, 1 - ☎ 59 43 32
ANDOAIN

LEZARAN FINKAK

ETXEBIZITZA ETA
LOKALEN SALEROSKETA
ETA ALKILERRARI
BURUZKO INFORMAZIOA

KALENAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN

IZEIA

LURRINDEGIA - APAINDEGIA

Juan Bta. Erro, 2 - ☎ 59 21 46 - ANDOAIN

Hots,hots!

JAIOTAKOAK

ADUNA: Asier Aburuza Belamendi. Martxoak 12.
ANDOAIN: Saioa Agregano Cordero. Otsialak 17.
Itziar Eizmendi Garin. Otsailak 20.
Janire Goñi Arratibel. Otsailak 23.
Imanol Iraola Treku. Otsailak 25.
Asier Girado Irasuegi. Otsialak 27
Jenifer Caramelo García. Otsailak 27.
Nora Aranburu Txapartegi. Otsailak 27.

ASTEASU: Jose Anguel Rivera Laguillo. Otsailak 22.

BILLABONA: Myriam Calvo Carrasco. Otsailak 22.

EZKONDUTAKOAK

ANDOAIN: Bovalm Fheikh-Amar eta Josebe Gallarzabal Laquintana.
Otsailak 16.
Laureano Rodriguez Hernani eta Maria Janeth Rivera
Agredo Otsailak 24.
Jesus Mari del Rio Aldasoro eta M. Lurdes Loiarte
Txintxurreta. Martxoak 12.

BILLABONA: Roberto Garate Jae eta Agurtzane Etxabe Ayastuy.
Otsailak 26.
Casimiro Cid Cambeses eta Beatriz Salido Sierra.
Martxoak 9.



GOIAN BEGO

ANDOAIN: Matilde Arribillaga Olasagasti. Otsailak 18.
Isabel Lasa Rekalde. Otsailak 23.
Justo Román González. Otsailak 23.
Juan Mari Fernández Enríquez. Martxoak 12.
BILLABONA: Jose Luis Arana Yarza. Otsailak 26.
Karmelo Iraola Seguro. Martxoak 12.

SUKALDE TXOKOAN



Nekane Roteta
Larraulgo herri-
ostatuko sukaldaria.

Intxaur-saltsa

Osagaiak:

Litro erdi esnegain likidoa.
Litro erdi esne.
Azalik gabeko 100-150 gr. intxaur.
Kanela eta limoi azal puska bat.

1- Molinilloan intxaurrak ondo xehatu.

2- Esnea, kanela eta limoia azalarekin egosi eta ondoren pasadorean iragazi.


3- Esnea, esnegain likidoarekin eta intxaurrekin egosi. Egosi bitartean goilara batez etengabe mugitu, bestela lapikoaren ipurdiari itsatsia geldituko da. Bost minutuz ihardun ondoren, azukrea nahastu eta beste minutu batez sutan utzi.

4- Ondoren sutik kendu eta pixka batean mugitu ondoren ontzietara bota. Gaina esnegain edo intxaur xehetuaz apain daiteke.

OHARRA: Intxaurrak eta esnea baserrikoak badira, zaporea hobea izango da eta saltsa lodiagoa.

PAPERDENDA
ERNAITZA
LIBURUDENDA

Zumca kalea, 2
☎ 59-24-59
ANDOAIN



MENDIKO ETA ERREPIDEKO
BIZIKLETAK

DENDAKO TELF. 59 43 41
TAILERREKO TELF. 59 37 99

KALEBERRIA, 22
20140 ANDOAIN

Zure hizpidea



Aiurri aldizkariaren aproba moduko -1 zenbakia iazko urtarrilean agertu zen.

Eta lorpen handia iruditu zitzaidan Aduna, Zizurkil, Larraul, Asteasu, Andoain eta Billabonak osatutako elkarte berri bati lotu eta eskainitako aldizkari bat gauzatzeari. European eta mundu zabaleko besteetan elkartzeko beharra sentitu badute, auzolanean ohituak garen euskaldunon artean egiazko sei herri bizi, bakoitzak bere nortasuna galdu gabe, elkarlanean jartzea zuzena eta meritagarri izan da.

Gauza bat baita herri bakoitzak bere buruaren jabe izate aberatsa gorde eta aberastea, eta beste bat akordio zabalagoen beharretan merkeago eta eragingarriago duintasunez aritzen jartzeko gauza izatea.

Beajondaizuela gaurko gure Euskal Herriko nahaste alferren artean hainbeste-ko zentzu eta kemen erakutsi diguzutenei.

Martin Ugalde

37

OHARRA:

Gogoan har ezazu irakurle, bidali nahi duzun karta edo idatzia, kasu guztietan, zure izena eta bi deiturez eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin lagundu beharko duzula. Era berean, zure helbidea jakinaraz iguzu, arren!



KARRIKA


AUTOAK

TAILERRAK ETA DENDA

Ubilutz auzoa, 10.

☎ 30-02-14 / 30-00-89

ANDOAIN



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TEL: 59 07 61

INDUSTRI POLIGONOA
7.AREA - 4. PABILIOIA ADUNA

IRULAS

TELEFONOA 69 02 58

LAROTEGIA

-ZIZURKIL-

"IKASTETIK EZ DATOR, BAIZIK ETA BEREZKOTIK"



Saizarko Elisabeth

Elisabeth, 63 urteko emakumeak badu kurandero/a guztiek ohi duten pertsonaren barnean sartzeko ahalmena. Begi argiak, handiak... Euskal Herri osotik hainbat eta hainbat etortzen dira Elisabethengana bere osasunaz jakin nahirik.

Arratsalde euritsu batean, bizikletak hartu eta mendi zokoan dagoen SAIZAR baserrira hurbildu ginen:

G: Kaixo Elisabeth.

E: Kaixo.

G: Nondik datorkizu kurandera zaletasun hori?

E: Nere sehaska zaharratik, hau da, jaiotzetik.

G: Zenbat urterekin hasi zinen?


E: 19 urte bitartean sendagile batekin egon nintzen, hark anai botikaria zuen eta orduan eta gehiago gus-tatu zitzaidan lana, handik aurrera beti.

38

MIENTIKOST

Liburudenda-Paperdenda

Kale Nagusia, 20 - ANDOAIN



José Galparsoro

BALDOSAK - GRES -AZULEJOAK
ETXEGINTZARAKO MATERIALA

ERAKUSKETA: Kaleberria, 36 beheka - ☎ 59 25 55 - Etxekoa ☎ 59 18 91

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Borda-berri poligonoa, 5 - ☎ 30 01 45

artekoa



Kristina, Idoia, Amalur eta Josu.

G: Zer senda dezakezu?

E: Ba, gauza pilo: soriasisa, kantzerra, kangrena, txitxareak, eztarriko infekzioa, buruko sinositisa eta abar luze bat...

G: Zu gaisotzen zarenean nork sendatzen zaitu?

E: Ba, sekula ez naiz gaisotu eta gasiotuko banintz nere seme-alabak, eta sendagilea beharra izango banu.

G: Gustatuko al litzaizuke zure alabaren batek zuk eginiko bidea jarraitzea?

E: Bai, denek egingo balute, hobe. Baina ez dadila izan zerbait ikasia, berezkoa baizik. Jakina, ikasketak lagungarri dira.

G: Momentu honetan zerk kezkatzen zaitu gehien?

E: Zer kezkatzen nauen gehien? Eskoletan eta leku guztietan dagoen birus batek: txitxareak, eztarriko mina eta katarroak, horrek ematen dit kezkarik handien.

G: Nola jakiten duzu bakoitzak zein gaisotasun duen?

E: Ba, begietan begiratzearekin bakarrik.

G: Zein gaisotasun da gehien zabaldue-na?

E: Esan dizut, gehienbat txitxareak eta hauek oso zailak dira sendatzeko.

G: Norbait etorri al zaizu sendaezineko gaisotasun batekin?

E: Ez, gogoratzen naizela ez, baina latzak bai.

G: Zein belar mota dira gehien erabiltzen dituzunak?

E: Denak, belar klase denak, segun zer daukazu, haren ukendua egiten da balarrekin eta segun zer daukazu erantsi behar diozu belar hori.

G: Nondik lortzen dituzu belarrak?

E: Lehen, aita bizi zenean mendian, eta orain hemen haziak egiten saiatzen naiz, baina baditut pertsonak Bartzeolnatik, Nafarroatik, Bizkaitik eta ferietan ikusten duten lekutik bidaltzen dizkidatenak.

G: Gaisotasun bat sendatzeko zenbat belar mota behar dira?

E: Askok, segun zein gaisotasun den. Nik ukenduak egiten ditut, belar klase guztiekin, gero jateko belarrak botatzen dizkiet eta azkenik fruta.

Pedro Maria Otaño Herri Eskolako 8. mailako Kristina, Idoia, Amalur eta Josu.

SZAA
Elektratresnak

Kale Nagusia, 33 - Telf. 590206 - ANDOAIN

ANTZOLA, S.A. Aroztegia

AROZTEGI MEKANIKOA
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK
BARRUKO ATEAK
LURRAK
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK
MOTA GUZTITAKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA, 126 - ANDOAIN

Jaunartze haundia

Orain dela hirurogeita hamar urte inguru garrantzi handia zuen jai honek. Hamar, hamaika urtekin egiten zen Dotriña Elizan ongi ikasi eta gero, kaskarreko batzuen gora behera. Horregatik, orduko amonak sukalde bazterrean erakutsi behar izaten zieten beren ilobatxoei. Dena dela, iritsi zitzaion egun hori gure Nikasiori eta etxeko bazter, armario, zoko guztiak miatuta, eta auzoko batzuen laguntzarekin jantzi zuten gure mutila lazo eta guzti. Sendi guztia pozik zegoen hari begira.

Baina hontan ama ohartu zen oinetakorik ez zuela, eta esaten dio: "*Ua aguro Maindira*" (hau denda haundi bat zen, denetik edukitzen zuten: janariak, arropa, oinetakoak eta abar), "*Esaiok andreari emateko iretzako zapata pare bat, baño bi numero aundiagoak*". Bai azkar joan ere gure mutila. "*Amak esan dit zapata berri batzuk emateko neretzat, baño bi numero aundiagoak*" esan dio. Eman dizkio zapata mutur luze, dotore batzuk, eta "*Amak esan dit apuntatzeko*" esanez, zapatak hartuta hor dihoa gure Nikasio. Berandu zen eta sartu ditu itsumustuan zapatak (ez zuen kaltzador beharrik) eta jauzika joan zen Elizara.

Handik ordu pare batera hor dator gure Nikasio negarrez etxera. Amak, larrituta, "*Zapatak min ematen diela ta kendu egin biattula?*", esaten dio, "*Baño nik esan ez dit ba bi numero aundiagoak emateko!*". "*Baño miña emateiela!*" esan dio beste behin mutil gaixoak. Hontan amak begiratu dio ba, ze izango ote zen, eta ikusten du aldrebek jantzita zeuzkala, eskubikoa ezkerrean eta ezkerrean eskubian.

Ze gutxi irauten duen alaitasunak pobrearen etxean!

■ Joxe Eizmendi

Bertsotan



Aitor Usandizaga asteasuarra

Udaberriak loratzen ditu
zelai eta sagastiak
goizero bere lanari tinko
heldzen dio eguzkiak
baketsu eta alaitasunez
argitzen duten izpiak
baina gure sarraskiak
bidaltzen ditu guztiak (bis)
indarkeriak jartzen baititu
begiak malkoz bustiak
udaberriko xarmantauna
galtzen duten argazkiak (bis)

Etengabeko istiluetan
dagoen etorkizuna
gorrotoaren hatzamarretan
galtzen doa maitasuna
odol jario denen errudun
ta baztertzea asuna
da gure eginkizuna (bis)
udaberriak berriro ere
har dezan goxotasuna
zu ere saia zaitetz eskaintzen
berak eskaintzen dizuna (bis)

Doinua: Leiho ertzetik





DANIEL BARCOS, S.A.

Elbarrena Industrialdea, z/g

ADUNA - ☎ 69-19-94/95

**GIPUZKOARAKO KONTZESIONARI
OFIZIALA**

**ERAKUSKETA ETA SALMENTAK
TAILERRAK ETA ERREKANBIOAK**

TURISMOAK

Nissan Micra 995.000 pzta.-tik aurrera.
 Nissan Primera 1.795.000 pzta.-tik aurrera.
 Nissan Suny 1.600.000 pzta.-tik aurrera.
 Nissan Serena 1.990.000 pzta.-tik aurrera.
 Nissan Terrano II 2.595.000 pzta.-tik aurrera.
 Nissan Patrol eta GR. (Inportaziokoak)

**HIRU URTEZ ERABATEKO
GARANTIA!!**

**NISSAN
INDUSTRIALAK**

Vanette
 Trade 2.0 eta 2.8
 Kamioiak 14.000 Kg. eta
 230 zaldi bitartekoak.

ERNE!




**✏️ AUKERAKO IBILGAILUEN GIPUZKOAKO SALTEGIRIK
HANDIENA DAUKAGU. MARKA ETA MODELO
GUZTIETARIKO TURISMOAK, LURROROTARIKOAK,
FURGONETAK ETA KAMIOIAK**

**LEKUZ ALDATU GARA
 ADUNATIK
 BILLABONARA,
 1. ERREPIDE
 NAZIONALERA.
 FRILA (FRIGO)
 ENRESAREN ONDOAN
 GAUDE.**

☎ 69.08.12 / 69.08.16





MLARAMENDI

MANUEL
LARRAMENDI

Kultur
Bazkuna

GUREA
PLAZARATUZ,

BESTEENAZ
ABERASTUZ,

GUREA
INDARTZEKO

||

GAUR, EZ BIHAR!!